5 *LURZORUAREN ERABILPENAK. KEINUAK ETA PRAKTIKAK ESKULTURAN*
USOS DEL SUELO. APUNTES SOBRE GESTOS Y PRÁCTICAS EN LA ESCULTURA
MARIA VIRGINIA JAUA 14

21 *LURZORUA*
SUELO
PEDRO DE LLANO 29

37 *ANA LAURA ALÁEZ ETA MAITE GARBAYOREN ARTEKO ELKARRIZKETA*
CONVERSACIÓN ENTRE ANA LAURA ALÁEZ Y MAITE GARBAYO
MAITE GARBAYO 45

54 **AMAIA MOLINET** 54

56 *68AREN OSTEAN. ARTEA ETA PRAKTIKA ARTISTIKOAK EUSKAL HERRIAN, 1968-2018*
DESPUÉS DEL 68. ARTE Y PRÁCTICAS ARTÍSTICAS EN EL PAÍS VASCO, 1968-2018
MIRIAM ALZURI, BEGOÑA GONZÁLEZ, MIGUEL ZUGAZA 62

67 *DENBORA PREMIAREKIN, IRRIBARREA ESPAZIOAREKIN, PATATAK PATATEKIN. ELKARRIZKETA BAT JOSÉ RAMÓN AMONDARAINEN ETA NADIA BARKATEREN ARTEAN*
TIEMPO CON URGENCIA, RISA CON ESPACIO, PATATAS CON PATATAS. UNA CONVERSACIÓN ENTRE JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN Y NADIA BARKATE
NADIA BARKATE 74

82 ALKOLEA BEACH
SANDRA CUESTA, LARRAITZ TORRES, AMAIA URRA 89

96 ZENA ETA DENA
OIER IRURETAGOIENA 101

106 **HARRIAK** 106

107 **AGENDA** 107

108 **JONE LOIZAGA** 108

ERREALA #5

eremuak #5

edizioa / edición
Iñaki Imaz, Pello Irazu, Maider López, Leire Vergara

koordinazioa / coordinación
Natalia Barbería

testuak / textos
María Virginia Jaua / Pedro de Llano / Maite Garbayo, Ana Laura Aláez / Miriam Alzuri, Begoña González, Miguel Zugaza / Nadia Barkate, José Ramón Amondarain / Sandra Cuesta, Larraitz Torres, Amaia Urra / Oier Iruretagoiena

testu-edizioa / edición de textos
Fernando Quincoces

irudiak / imágenes
azken orrialdea / contraportada: Jone Loizaga

erdiko orrialdea / página central: Amaia Molinet

HARRIAK-eko irudiak / imágenes de HARRIAK [1] [2] [3] David Hornback, [4] [5] [6] Dani Mera, [7] [8] [9] Maia Villot de Diego

irudiak / imágenes de agenda [1] Lydia Lomas, [2] [3] [4] [5] [6] Dani Mera, [7] Leire Vergara, [8] Miriam Petralanda, [9] [10] Damaris Pan, [11] [12] Leo Burge [13] Alberto Peral

diseinu grafikoa / diseño gráfico
Maite Zabaleta Nerecán

euskararako itzulpena / traducción al euskera
Belaxe

inprenta / imprenta
Artes Gráficas Lorea, Donostia

aleak / tirada 1.500
Donostia-San Sebastián 2018ko urria / octubre de 2018
www.eremuak.net

© irudiena, artistek / de las imágenes, los artistas
© textuena, egileek / de los textos, los autores

ISSN: 2444-6319
lege gordailua / depósito legal: SS-1149-2015

eremuak. Arte garaikidearen testuingurua ekoizteko programa irekia. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Eusko Jaurlaritza

eremuak. Programa abierto para la producción de contexto en el arte contemporáneo. Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco

EDITORIALA

2013an abiarazitako ibilbidea honaino jorratu eta dagoeneko bost zenbaki argitaratu ondoren, unea da Euskal Herriko arte garaikideko testuinguruan egiten diren arte-jarduerei buruzko gogoeta, kritika eta azterketa egiteko eta **eremuak** programak bultzatutako lanen berri emateko bitartekotzat erabiltzea aldizkaria. Ildo horretan, 3. zenbakitik aurrera, argitaraldi bakoitzaren edukiak gai-ardatz baten inguruan egituratzea erabaki genuen, itxuraz elkarren artean independenteak izan arren, kultura-ingurune berean sortutako proposamenen arteko harremanak zehaztu eta interpretazio kritikoak ahalbidetzeko asmoz.

Eta hari berari tiraka, arte-jarduera askotan lurzoruak arte-gertaerarako gunetzat hartu duen garrantziaz hausnartu dugu *eremuak #5* honetan. Azken garaian, instalazioetan, eskulturetan edo objektuetan, baita performanceetan eta margoetan ere, lanak zoruaren gainean aurkezten dira, sarritan espazioan sakabanatuta, beraien izaera materiala eta mundutarra nabarmentzeko antolatuta. Gure iritzian, eginbide horren sustraiak tokian bertan bila genitzake, laurogeiko hamarkadako euskal eskulturan bereziki jorratutako jarrera batzuetan. Nolanahi ere, gure eremuko nahiz kanpoko artista ugariren eginbideetan erabiltzen den antolamendu-mota guztiz hedatua da. Horren inguruko interpretaziorik edo baloraziorik egin gabe, fenomeno hori egoera jakin baten sintomatzat hartzen dugu: itxuraz horizontalarekin kontaktuan eraginkortasun handiagoz hezurmamitzen diren erabaki kontzeptual eta adierazpen-premia batzuk agerrarazten dituen aldarte erkide baten sintomatzat, alegia.

Egoera hori aztertzeko, testuingurutik kanpoko begiratuetara jo dugu, bestelako ikuspegi bat eman dezaketelakoan. Horra hor, hain zuzen, Pedro de Llano historialari eta erakusketa-komisarioaren eta Maria Virginia Jaua idazle eta editorearen kolaborazio nagusien arrazoia.

Bilboko Arte Ederren Museoak 2018ko azarorako antolatutako *68aren ostean* erakusketaren komisario-taldea osatzen dute Miriam Alzurik, Begoña Gonzálezek eta Miguel Zugazak. Hain zuzen, horiek sinatutako testuak, Museoaren bildumatik eta beste erakunde batzuen lanetatik abiatuta, Euskal Herriko azken urteotako artearen ikuspegi zabala aurkeztuko duen proiektu horren bozgorailu izan nahi du.

Horretaz gain, artistekin egindako ohiko elkarrizketak ere hartzen ditugu aldizkarian: kasu honetan 2018an Donostian eta Bilbon egindako bi erakusketa garrantzitsuren berri emateko. Batetik, José Ramón Amondarain pintorearen *Espazioaren barrea,* Donostiako San Telmo Museoan egindako tamaina handiko erakusketa, eta, bestetik, Ana Laura Aláezek Bilboko CarrerasMugica galerian aurkeztutako *Resistencia* erakusketa (artistak ibilbide luzea duen arren, bi hamarkada baino gehiago eta gero, Bilbon egiten duen lehenengo banakako erakusketa ere bada). Belaunaldiak elkarren artean lotzeko asmoz, Nadia Barkate artistak eta Maite Garbayo ikerlari, idazle eta erakusketa-komisarioak egin dituzte, hurrenez hurren, elkarrizketa horiek.

Zenbakia biribiltzeko sartu ditugu, halaber, Oier Iruretagoienak Markinan Harriak programaren baitan komisariatutako *Zena eta dena* erakusketarako idatzi zuen testua; Sandra Cuesta, Larraitz Torres eta Amaia Urra artistek (Deialdi Jarraituaren laguntzaz) sorturiko Alkolea Beachen kolaborazioa, berrikitan itxi den sorkuntzarako eta arte-bitartekotzarako gunearena; Amaia Molinet artistaren kolaborazioa erdiko orrialdeetan (haren *Das Paradies* proiektuak ere Deialdi Jarraituaren babesa jaso zuen); eta, amaitzeko, Jone Loizagaren atzeko azala.

Azkenik, ongi etorria eman nahi diogu Maider López artistari, 2018ko maiatzean **eremuak**eko batzorde teknikoan (eta, ondorioz, aldizkariko talde editorialean ere) hasi berri den kideari. Aldi berean, egindako lana eskertu eta agur esan nahi diogu Pello Irazuri, editore gisa izan duen azken parte-hartzearen ondoren batzordea utzi duen kideari; haren ordez sartu da Maider, hain zuzen.

eremuak #5 doan banatuko da, eta hainbat kultura-zentro eta liburutegi publikotan dago eskuragarri, baita www.eremuak.net webgunean ere, nahi duenak libre deskargatzeko.

Editorial

Con una historia que arranca en 2013 y tras cinco números ya publicados, afrontamos en este momento el reto de ir consolidando la revista como espacio para la reflexión, la crítica y el análisis de las prácticas artísticas del contexto del arte contemporáneo en el País Vasco, así como medio para la difusión de trabajos apoyados por el propio programa **eremuak**. En esa dirección, a partir del número 3 se decidió articular los contenidos de cada entrega en torno a un eje temático que posibilitase interpretaciones críticas y el establecimiento de relaciones entre propuestas, en principio independientes entre sí pero surgidas de un mismo entorno cultural.

Continuando en esa estela, en este *eremuak #5* reflexionamos acerca de la relevancia que el suelo ha tomado en muchas prácticas actuales en cuanto lugar para el acontecimiento artístico. En muchas ocasiones en los últimos tiempos, ya sea desde soluciones instalativas, escultóricas u objetuales, performativas o incluso pictóricas, las obras aparecen a ras de tierra, a menudo diseminadas por el espacio, en una disposición que agudiza su carácter material y mundano.

Entendemos que se trata de un modo de hacer cuyas raíces podrían rastrearse dentro de lo local en ciertas actitudes desarrolladas específicamente en la escultura vasca de los ochenta, pero que, en todo caso, pone en juego un tipo de solución dispositiva muy extendida que atraviesa las formas de hacer de un amplísimo espectro de artistas dentro y fuera de nuestro ámbito. Sin entrar en interpretaciones ni valoraciones al respecto, observamos el fenómeno como síntoma de cierto estado de cosas, de cierto ánimo compartido que pone en evidencia decisiones conceptuales y necesidades expresivas que, al parecer, toman cuerpo de manera más efectiva en contacto con la horizontal.

Para examinar la presente situación hemos recurrido a miradas externas al contexto que pueden aportar un punto de vista diferente. De ahí las colaboraciones principales del historiador y comisario de exposiciones Pedro de Llano y de la escritora y editora María Virginia Jaua.

El texto firmado por Miriam Alzuri, Begoña González y Miguel Zugaza, equipo comisarial de *Después del 68*, exposición organizada por el Museo de Bellas Artes de Bilbao para noviembre de 2018, pretende servir de altavoz para un proyecto que, tomando como punto de partida la propia colección del Museo y obras de otras instituciones, presentará un amplio panorama del arte de los últimos años en el País Vasco.

Incluimos, además, las ya habituales entrevistas o conversaciones entre artistas, en este caso para dar cuenta de dos exposiciones importantes realizadas durante 2018 en Donostia y Bilbao. Nos referimos a *La risa del espacio*, del pintor José Ramón Amondarain en el Museo San Telmo de Donostia, exposición de gran envergadura, y a *Resistencia,* que, a pesar de la ya larga trayectoria de la artista, ha sido la primera individual en Bilbao de Ana Laura Aláez después de más de dos décadas, en la galería CarrerasMugica. Con la intención de poner en relación a generaciones diversas, las encargadas de realizar esas entrevistas han sido respectivamente la artista Nadia Barkate y la investigadora, escritora y comisaria de exposiciones Maite Garbayo.

El número se completa con un texto de Oier Iruretagoiena escrito para la exposición *Zena eta dena*, que él mismo comisarió en Markina dentro del programa Harriak; la colaboración de Alkolea Beach, recientemente cerrado espacio de creación y mediación artística en Donostia a cargo de las artistas Sandra Cuesta, Larraitz Torres y Amaia Urra, apoyado en la Convocatoria Continua; la intervención en las páginas centrales de la artista Amaia Molinet, cuyo proyecto *Das Paradies* fue también apoyado en la Convocatoria Continua; y, para finalizar, la contraportada de Jone Loizaga.

Por último, queremos aprovechar la ocasión para dar la bienvenida como miembro de la comisión técnica de **eremuak** y, en consecuencia, también del equipo editorial de esta revista, a la artista Maider López, recién incorporada en mayo de 2018. Asimismo agradecemos su labor y despedimos a Pello Irazu, que, al ser relevado por Maider, deja la comisión tras esta su última participación como editor.

De distribución gratuita, *eremuak # 5* está disponible en diversos centros culturales, bibliotecas públicas y, a través de libre descarga, en el sitio web www.eremuak.net

LURZORUAREN ERABILERAK. KEINUAK ETA PRAKTIKAK ESKULTURAN: ZENBAIT OHAR

MARÍA VIRGINIA JAUA

Gauza jakina da "lurzoruaren erabilera" esamoldeak —oso esamolde arrunta mendebaldeko gizarteetako lurralde antolamenduaren esparruan— gizakiek lur azalera jakin batean egiten dituzten ekintzei, jarduerei eta esku-hartzeei egiten diela erreferentzia, eta lur azalera hori emankor bihurtzea, aldatzea edo dagoen-dagoenean mantentzea du helburu. Hala, azterketa bat egin eta ondoriozko txosten bat atera ondoren, lurzoru erabilera batzuk esleitzen zaizkie gizakiaren jarduerekin loturiko (eta zehazki gizakiaren sorrera, garapen eta heriotza prozesuekin loturiko) produkzio eta zerbitzu askotariko batzuei.

Esamolde hori landa-lurzorua hiri-lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik bereizteko sortua izan arren berez, kulturaren esparrura ekar dezakegu —jauzi ausart samar bat eginda— artearen praktikan gertatzen diren aldaketak, biraketak edo adierazpenak zehazteko eta haien inguruan hausnartzeko.

Goian aipatutako hiru prozesu mota handi horietan gizakiak aurrera eraman ditzakeen jardueren kopurua ia amaigabea dela kontuan hartuta, guk "garapen prozesuak" atalean jarriko dugu arreta, eta, atal horren barruan, artista eta eskultore batzuek "lurzoru erabilera"ren inguruan egiten dituzten praktika batzuk aztertuko ditugu.

Gaiari heldu baino lehen, baina, zehaztapen bat egin beharra dago: hemen ez dugu hitz egingo Rosalind E. Kraussek eskulturari buruzko bere gogoeta egiteko euskarri gisa baliatu zituen artistez eta lanez,[1] nahiz eta hark aztertu zituen adibideetako asko hemen aipatuko ditugun artisten eta obren ikus-kulturaren parte ere izan. Horren arrazoiak bi dira funtsean: batetik, haren testua —ezinbesteko erreferentziatzat dudana— digeritua eta geureganatua dugula uste dudalako, eta, beraz, ez dagoelako askoz gehiago esaterik hari buruz; bestetik, saiakera honetan aztergai ditudan praktikak eskala txikiagokoak direlako, eta xumeagoak bere osagaietan eta luze-zabaleran; dena dela, esan beharra daukat lan horiek helburu monumental, arkitektoniko edo paisajistiko berezirik ez izan arren ez direla horratik asmo txikiagokoak.

Esan dezadan, beraz, genealogia pertsonal moduko bat, ohar antzeko batzuk nahi nituzkeela partekatu irakurleekin, haurrek puxtarri-jokoan aritzean erakusten duten naturaltasun eta indar horrekin berarekin lurzoru gainean erakusgai jartzen diren arte ekoizpenen keinu eta praktika batzuk berriz aztertzeko asmoz.

Aipatu berri dudan asoziazio hori egitean (hasiera batean burutazio hutsa eman balezake ere), lotura bat baino gehiago erlazio-sistema oso bat aurkitu genuen jokoaren eta artearen artean. Horietako batzuen inguruan arituko gara segidan.

Mundurako lehen hurbilpena haur txikiak katamarka ibiliz ezagut dezakeen espazio horretan gertatzen da; aurrerago, bere burua sozializatzen hasi orduko,

Marcel Duchamp, *Trébuchet* ikuspegia, 1917. © Association Marcel Duchamp / ADAGP, París / VEGAP, Bilbao, 2018

haurrak jokoetan praktikatu ditu bizitzaren arauak eta aukerak. Puxtarri-jokoa kalean praktikatu ohi da, orubeetan, eskolako jolastokian edo parkeetan, baina berdin praktika daiteke toki itxietan ere, euriaren babes. Normalean hainbat jokalarik hartzen dute parte, baina banaka edo binaka ere jolas daiteke. Artean bezala, jokoak bere *denbora* eta bere *izatea* determinatzen du; horregatik, berak zehaztu du beti bere iraupena: iraun behar duena irauten du. Hori da, beharbada, jarduera biek —arteak eta jokoak— partekatzen duten ezaugarri ontologiko nagusietako bat. Beste datu bitxi bat: bai ingelesez, bai frantsesez, puxtarriei "marmol" deritze (*marbles* eta *marbres*, hurrenez hurren), eta jakina denez, marmola da eskultura klasikoaren material kutunena. Horiek horrela, material hori erabiltzen duen jolasa eta diziplina artistikoa objektu arkeologiko gisa ikus daiteke egun, iragan baten lekuko izan eta historiaren zimenduak jarri ez ezik guri interesatzen zaizkigun arte-keinuetako batzuk sorrarazten dituzten objektu gisa, hain zuzen.

Lurzoruaren erabilerari buruzko lehen kasua: Duchamp

Ez da kasualitatea Marcel Duchampek nahiago izatea xakearen praktika artearena baino. 1917an, Lehen Mundu Gerra amaitu gabea artean, New Yorken bizi zen: han aurkeztu zituen artearen historia errotik aldatu zuten lehen lanak. Keinuen pasio ludiko horrek —erabakigarria guk hemen aztergai dugunari dagokionez— sortu zuen nire ustez *lurzoru erabilera* bete-beteko lehen eskultura izan zena, xumea, ludikoa, haurtzaroari loturiko askatasun erabatekoa: *Trébuchet*.

Irudia artistak New Yorken zuen etxe-estudioan bertan hartua izango da, segur aski, obra sortu zuen urte berean. Mitologia abangoardistak obra honen sorreraren inguruan egindako kontakizunaren arabera, Duchampek berokiak zintzilikatzeko erosi zuen esekitokia, baina "aukeran, nahiago ez" sindromeak egunero estropezu (*trébucher*) eginarazten zion etxeko zoruan utzia zuen objektu harekin. Eguneroko ezbehar txiki horiek esekitokia zoruan iltzatzeko kreazio-ekintza ekarri zuten ondorioz. Ekintzari emandako izenak artistaren pasio handienetako bi ohoratzen zituen: asmaketa (ideia batekin topo egitea) eta xakea.

Pieza hori galdu egin bide zen, edo agian New Yorkeko etxebizitzaren zoruan iltzatuta geratu zen betiko. Urte batzuk geroago, 1964an, Duchampek erreprodukzio bat egiteko eskatu zion galerista bati eta honek zortzi kopia enkargatu zituen. Haietako bat *Locus Solus - Impresiones de Raymond Roussel* erakusketan egon zen ikusgai, eta MNCARSen aurkeztu zen. Dena dela, komisarioek pieza euskarri baten gainean jartzean haren "lurzoru erabilera"n eragin zuten aldaketak erabat indargabetuta utzi zuen arte kontzeptualaren haren estropezu aitzindari haren jatorrizko zentzua.

Une egokia dugu hau esateko, arteak (edo artearen sistemak) oinarrizko bi gailu erabili izan dituela artelanak aurkezteko: euskarria edo idulkia eskulturarentzat eta objektu tridimentsionalentzat, eta markoa pinturarentzat eta, geroago, argazkiarentzat. Gailu horiek eta haien aldaerak obraren zerbitzura daude eta hura aurkezteko erabili izan dira, hari ikusgarritasuna emateko, dotoretzeko, baina baita babesa emateko ere, nola obrari berari hala hari begira dagoen pertsonari ere.[2]

Artearen "zerbitzura" jarritako elementu horien inguruan hausnartu dutenen artean, aipa dezagun, irakurleen hurbileko adibide gisa, CVA kolektiboaren lana. Marisa Fernándezek eta Juan Luis Morazak osatua, kolektiboak berariaz aztertu zituen gai horiek: markoarekin zerikusia duen guztia bereziki, baina baita pinturaren eta eskulturaren arteko erlazioa ere. *(P) Punto de vista* (1982) instalazioa *(15. or.)* baliagarria izan dakiguke kolektiboaren ikerketak zer ekarri zuen ikusteko.

Behin honetara ezkero, eta ordena ezinezko bati eustearren, Jorge Oteiza aipatu beharra dago: euskal kulturaren maisu handia (eta ez hori bakarrik) izan zena, dena eta izaten segituko duena. Esaldi hori idazten ari naizela neure buruari galdetzen diot ea Oteiza bera bat etorriko ote zen nire iritziarekin, ez ote zuen nahiagoko eskultura hitzaren ordez *estatuaria* hitza erabiltzea. Ez bainaiz gai enigma hori argitzeko, esango dut Oteizak artisten artean —euskal artisten artean bereziki— izan duen eragina erabakigarria dela oraindik ere; are gehiago, gazteenek erreferentziatzat daukate.

Oteizak bere lanentzat hautatutako kokalekuak aztertzean, beste enigma batekin egin nuen topo. (Artea enigmaz beterik dago, edo egon behar luke.) Haren lanen artean giltzarri izan zitekeen pieza baten bila ari nintzela, adierazgarrienetakotzat daukadan bat topatu nuen: *Kutxa hutsa* (1958).

Ez da "lurzoru erabilera" esmoldearen barruan, haur jolas batean, betebetean egokitzen den obra bat; ez dago, ezta ere, material galkorrez edo xumeez egina (kartoiz egina, adibidez), altzairuz baizik, baina funtsezkoa gertatzen da kasu-estudio batzuk aurkeztea helburu duen azterketa-ildo honen barruan. Orain ikusiko dugu.

"Kutxa hutsa" honek —artista honen obraren testuinguruan sortua eta irakurria izan zen moduan— deseraiki egiten du eskultura, hustu kuboaren forma edo gorputza, Oteizak berak erabiliko lituzkeen hitzetan esateko. *Hustuketa* prozesu horrek ugaldu eta indartu egiten ditu irakurketa- eta esanahi-mailak. Ikus dezakegunez, "kutxa hutsa" gogoeta hauetan txertatzea posible ez ezik koherente ere egiten duen zerbait dago horretan. Baina bada besterik ere. Hustuketa horretan, obraren "arkitekturizazio" prozesu bat dago, eta horrek beste aukera bat eman digu, bitan adarkatzen du bidea, puxtarrien zoru-erabilera libre eta ludikoarekin batera maketen unibertso ludikoa eta ordenatua agertzen baitzaigu. Gogora dezagun haurrek oso gogoko duten beste joko bat eraikuntza-jokoa dela: munduak eraikitzea zurezko kubo txikiak eta bestelako materialak edo han-hemen aurkitutako objektuak erabiliz. Haurrek munduak eraikitzen dituzte lur gainean, bestelako bizitzak bizi ditzaketen beren neurriko munduak. Aurrerago ikusiko dugunez, maketak eraikitzeko ariketa horren barruan dagoen asmoak lotura zuzena du, puxtarri-jokoak bezala, artearen lurzoru-erabilera horrekin.

Jorge Oteiza, *Caja vacía* (1958), corten altzairua, 53,5 x 46 x 46 cm © Jorge Oteiza © Pilar Oteiza, A+V Agencia de Creadores Visuales, 2018

Oteizarengan —XX. mendeko bigarren erdian artearen munduak eman zuen buru argienetako bat izan zen artistarengan— bat egiten dute itxuraz bateraezinak ziruditen bideak. Kutxa hutsak erretratu erlijioso gisa funtzionatzen du, kutxa metafisiko gisa —*utsgoikoa*—, doikuntza dialektikoz arnasa hartzen duen barne espazio bat bezala. Deskribapen eta funtzio horiek ez dira nireak, Oteizarenak baizik, eta niretzat "argitzapen" moduko batzuk dira denak. Gauza bat baino ez nuke gehituko: Oteizak, arte-ikerkuntzan, "desokupazioa" iradokitzen duenean, kreazioegintzaren beraren potentzialtasun osoa betetzeko prozesuan dago.

Ea hori esanik dena esana dago.

Hona hemen *Kutxa hutsa*ren bi irudi; niri bitxiak iruditzen zaizkit, beren antzekotasunak eta ezberdintasunak direla eta.

Ikus daitekeenez, argazki biak ia berdinak dira. Dena dela, nola batean hala bestean ezberdintasun bat dago azpian (munduko "bizitzak" berezkoa duen ezberdintasun bat, bidenabar esanda). Lehen irudian, pieza idulki txiki eta bistara ikusezin baten gainean dago jarrita. Piezak gainalde horizontalaren gainean proiektatzen duen itzalari esker ondoriozta daiteke badela idulkia. Iduri luke pieza idulkiaren gainetik lebitatzen dagoela, eta horrek beste esanahi bat ematen dio obrari. Bigarren irudian *(16. or.)*, berriz, norbaitek (ez dakigu zehazki nork: artistak, komisarioak, kontserbatzaileak, argazkilariak) erabaki du piezaren argazki-hartze bera egitea, baina pieza zuzenean gainalde baten gainean jarrita, euskarri hori gabe. Ezin dezakegu jakin zein izan zen artistaren asmoa eta argibiderik utzi ote zuen bere obra instalatzeko orduan bete beharreko baldintzei dagokienez. Baina baiezta dezakegu, ordea, aukera biak baliagarriak direla eta egituratu nahi den kontakizunaren kargu dagoenaren esku geratzen dela bata edo bestea hautatzea; batzuetan diskurtsoaren lanketatik at dauden beste zirkunstantzia batzuen mende dago hori.

Lurzoruaren erabilerari buruzko bigarren kasua: Gabriel Orozco

Oteizaren kutxa metafisikotik abiatuta, beste jauzi kuantiko bat emango dugu Gabriel Orozcoren *Zapata-kutxa hutsa*raino (1993). Jauzi kuantikoa deitzen diot nik, bi kutxa horien artean baitago hasieran aipatu dugun —eta hemen aztertuko ez dugun— eremu hedatuko ia eskultura guztia.

Ia ziur nago Oteizak eragina izan zuela artista mexikarrarengan. Baieztapen hori gehiago da intuizio bat proposamen bien azterketa konparatibo batetik ateratako ondorio bat baino. Batzuetan pentsatzen dut intuizio bat askoz erabakigarriagoa eta sendoagoa dela posible egiten duen erlazio-sistemarengatik. Intuizio bat, ene iritziz, harri bat jasotzeko edo altxatzeko ekintzaren antzekoa da: behin harriak bere patua zein pertsonaren esku utzi hautatu ondoren, hura altxatua izango dela atzerabiderik ez daukan gertaera bat da ia. Baina ez nadin bidetik aldendu...

Gabriel Orozco, *Island within an Island* (Uhartea uhartean), 1993. Irudia: artistak eta kurimanzuttok utzitakoa, Mexiko Hiria, New York

Artista biek, Oteizak zein Orozcok, kutxa hutsak aurkeztu zituzten bere garaian. Hala ere, nahiz eta biak kutxak izan eta benetan hutsak egon, haien *hustuketa* ez da modu berean gertatzen eta ez dute esanahi bera ere. Saia nadin hau ahalik eta argien azaltzen.

1993an, Gabriel Orozko New Yorken bizi zen. Bada horretan korrespondentzia bitxi bat (ez da bakarra) Duchampekin. Izan ere, hiri horretan hasi zen artista mexikarra bere hiri txangoak egiten, bere lehen "estropezu" artistikoei bide ematen. Bereziki gustukoa dudan adibide bat, nahitaez aipatu beharrekoa nire ustez, *Island within an Island* da. Pieza hori argazki-erregistro moduan dago jasota.

Uste izatekoa da Orozcok ikuspuntu bat, ohol batzuk eta eskulturak egiteko beste material batzuk aurkitu zituela bere txango horietako batean, eta horrek lurzoruaren erabilera libre bat egitera bultzatu zuela, hitzaren zentzu oso eta zabalean, non eta munduko hiri garestienetako batean. Bere *ready made* pertsonal eta barnekoi horretan, bere keinu artistikoa guztiz bat dator maketen jokoak irekitako bidearekin. Niretzat hori da agian New Yorkeko hiriari egin zaion omenaldi eder eta poetikoenetako bat, Dorre Bikiak eraitsiak izan aurretik.

Zapata kutxa hutsa obran —1993an erakusgai jarria, Veneziako Bienalean—, berriz, bestelako *lurzoru-erabilera* batzuk darabiltza artistak, lotuagoak nire ustez *art system*arekin eta haren estrategiekin, *estropezua*rekin eta aurkikuntzarekin baino.

Zapata kutxa hutsa (17. or.) bere izenak dioena da, ez gehiago, ez gutxiago. Eta oso objektu soiltzat aurkezten bada ere, piezak badu bere kontakizun mitikoa ere. Esaten da areto bateko lurrean bertan jarri zutela erakusgai, eta behin eta berriro berritu beharra zegoela, Bienaleko bisitariek zapaldu eta ostikatu egiten zutelako, edota garbiketako langileek zaborretara botatzen zutelako, norbaitek han ahaztuta utzitako gauza bat zelakoan. Artea hondakinaren eta haren erreproduktibilitatearen aroan, nolabait esateko.

Orozcoren kutxa hutsa jada ez da Oteizaren kutxa metafisikoa, ezta Duchampen harako *Trébuchet* hura ere. Artea galdera existentzialei erantzuteko gai izateko helburua kapitalismoaren eta kontsumoaren distopia bat bezala agertzen da Orozcorengan. Baina baita hondakinaren eta esanahi-hustuketa baten distopia bat bezala ere. Hala ere, hustuketa hori etsiagoa da eta ez dago gerrei kontrajartzen zaizkien balio etikoek eraginda, ezta errepresio politikoak edo zentsurak eraginda ere. Aitzitik, kasurik onenean, giza sorkuntzak berak baztergarritik eta hutsaletik duenaren kontrako kritika zorrotz bat izan daiteke.

Ez dugu ahaztu behar, bestalde, zapatak kontsumo-artikuluak zirela, luxuzkoak, aro ekonomiko berri batean sartzen ari zen testuinguru hartan, bai New Yorken bai munduko beste hainbat tokitan. Kapitalismo basatia eta neoliberalismoa iristearekin batera, zapatak, artea bezala, ez ziren inoiz gehiago izango ordu arte izan zirena.

Obra honekin, Orozcok bere aurkezpen "ofiziala" egin zuen artearen munduan. Bestalde, obrak posizionamendu estetiko jakin bat ekarri zuen, elkarri kontrajarritako bi erreakzio eragin zituena: batetik, eskandalua eta, ondorioz, arte garaikidearen kontrako jarrera gero eta handiagoa izatea, sektore batzuen artean behinik behin; bestetik, Orozco arte garaikidean ate handitik sartzea eta ordu arte oso tradizio piktoriko markatua izandako herrialde batzuek —Mexikok, esate baterako— atxikimendu kontzeptuala agertzea.

Lurzoruaren erabileraren hirugarren kasua: Cildo Meireles

Beste pieza adierazgarri bat, adierazgarria bai lurzoruaren erabileragatik bai bere ezaugarriengatik, *Cruzeiro do sul* (*Hegoaldeko gurutzea*, 1969) da: zurezko kubo txiki-txiki bat —erdia pinuzkoa eta beste erdia haritzezkoa—, espazio huts baten erdian kokatua. Eskultura ia ikusezin hori —ikusleak, handitasunera eta obraren nagusitasunera ohituta egonda, hura ez ikusteko eta ez ulertzeko arriskua du, baita zapaltzeko arriskua ere— areto "ia" huts baten erdian "botata" aurkeztu zuten. Dagoen toki horretatik, obrak Ameriketako biztanle autoktonoen kosmogonia sinbolizatu nahi du: indiarrentzat, bi zur horiek elkarrekin igurzteak sua sortzen zuen, mundua sorrarazten.

Meirelesen *Hegoaldeko gurutzea*k oso ondo betetzen du lurzoru-erabilera bien —maketaren eta puxtarriaren— arteko topaketa perfektuaren promesa. Hura berriro ikustean, gogora datozkit bolatxo gardenak, eta bolatxook atomo sortzaileen desplazamenduarekin eta minimotasunaren potentziarekin izan dezaketen erlazioa. Baina, era berean, maketa ekarri dit gogora, bai eta nola kubo ñimiño horrek zalantzan jar dezakeen, eta erabat desmuntatu ere, bera barne hartzen duen edozein kubo zuriren diskurtso arkitektonikoa.[3]

Lurzoruaren erabileraren laugarren kasua: ekintza-eskultura

Elena Aitzkoa eskultoreak erlazio sakona du lurzoruarekin. Ameriketako, Ekialdeko eta Afrikako antzinako kulturetako emakumeena bezain zaharra den erlazioa. Gogora erkatzen ditugunean herriren bateko merkatuaren irudiak, adibidez, hor agertzen zaizkigu beti emakumeak lurrean eserita, menditxo talde baten antzera, salgaiak gonen gainean zabalduta. Orain burura trumilka datozkigun irudi horietan kolore asko agertu ohi dira, emakumeek eskaintzen

Elena Aitzkoa, *Opera building* performancea, *Headscarfs Close to the Ground* proiektukoa. OSLO PILOT 2016.
Argazkia: Niklas Lello

dituzten produktuen eta jantzita daramatzaten oihalen aberastasun kromatikoa dela eta. Baina oroimena zorrozten badugu, orobat ikusiko dugu emakume horien ondoan beti agertzen direla salgaiak garraiatzeko erabiltzen dituzten zorro eta edukiontziak: poltsak, zakuak, maletak, motxilak, kutxak... Izan ere, emakumeek merkatu finkoetan zein ibiltarietan egiten duten lana desplazamenduari lotuta dago beti, desplazamendu horren izaerak beti lurzorura erakartzen baditu ere. Mendiak toki batetik bestera mugi daitezkeelako froga bizia ditugu, beraz, emakumeok.

Euskal artista honen lanak aztertuta, esan dezakegu hark lurzoruarekin duen harremana hain kultura zaharreko eta desberdineko emakume haiek dutenaren mota berekoa dela: halako energia teluriko eta arkaiko bat dariona. Aitzkoarentzat, lurzorua bere piezak produzitzeko baliatzen dituen lantegia, mahaia eta euskarria izateaz gainera, ekintza bera (beraren ustez eskulturak berezkoa duen nolakotasuna da ekintza) gauzatzeko baliatzen duen espazioa ere bada, hark bere piezak erakusgai jartzen dituen eta bere performanceen bidez (piezaren inguruan ibiltzea, errezitatzea, kantatzea) biziarazten dituen tokia.

Baliteke, bai, haren lanetan animismo zerbait egotea: bada zerbait pentsarazten diguna bizia eman nahi diela bere obrei, mugimendua, hotsa eta hitza nahasiz egiten dituen erritu horien bidez.

Bere herri-ingurunearekin duen harremanaren bidez eta bere ekintzen bidez bere eskultore-zeregina aberastea lortu du hala Aitzkoak. Bere lanetan marrazkia, pintura eta eguneroko bizitzako objektuak (oihalak, liburuak edo orraziak) txeratzen ditu, baina baita naturak bakarrik sor ditzakeen elementuak ere (harriak, fosilak eta enborrak), hala nola ezkutatuta edo bilduta egoteagatik identifikatu ezin diren beste gauza asko ere. Elementu horiekin guztiekin eraikitzen ditu Aitzkoak bere eskulturak: mukulu biribildu moduko batzuk, behin amaituta lurzoruan ordena nolabaiteko batean kokatzen dituenak.

Obra horiek lurzoruan kokatzeko orduan, artistak ez ditu soilik artearen sistemak berezkoak dituen espazioak hautatzen —galeria edo museoa—, baita kanpoko espazioak ere, hirikoak —kalea, kaia, geltokia— zein naturakoak. Mukulu horietako txikienek gogora ekartzen dizkigute haurrek garai batean, errieta baten ondoren edo, beren ondasun apurrak zapi batean bilduz prestatzen zituzten fardelak, etxetik alde egiteko prest zeudelako itxurak eginez; baina tarteko tamainakoak edo handiak beste kultura batzuetako emakumeek beren salgaiak garraiatzeko —eta gero paseatzaileen eta erosleen begi harrituen aurrean zabaltzeko— egiten dituztenen antzekoak dira.

Bosgarren eta azken kasua: Zorua eta horma

Orain arte ikusitako kasuen artean *Zorua eta horma* dugu aurkezten berriena. Nik bi aldiz bisitatu dut, beste artista batzuekin batera. Narelle Jubelin eta Rubén Santiago artistek Madrilgo Vallecas herrian, ABM espazioan, elkarrekin egin zuten lan bat da.

Bi artista horiek, 2018an, aldi berean egindako instalazio batean datza lana. Jubelinek espazioaren lurzoruan kokatu zuen bere pieza eta Santiagok, aldiz, hormetan antolatu zen bere esku-hartzea. Lurzoruaren erabilerak eta gehiegizko erabilerak kritikatzen zituen instalazioak, burbuila inmobiliario berri baten garaian.

Irudietan instalazioaren ikuspegi orokor bat ikus dezakegu, eta hortik abiatuta haren eskala kalkula dezakegu, gutxi gorabehera. Hala ere, ez dago instalazioaren ikuspegi oso bat eskaintzerik, espazioaren oinplanoa irregularra baita. Hortaz, instalazioaren ideia osoena ematen duten ikuspegiak hautatu behar izan ditugu. Alde batera utzi genuen, baita ere, Jubelinen maketaren goitikako ikuspegia eskaintzeko ideia, Santiagok aretoko hormetan egindako esku-hartzea ere ager zedin.

Jubelinen piezak *NJABM04 Suelo* du izena eta kalean topatutako bilgarri-elementuez, kartoizko eta paperezko bilgarriz, osatua dago. Elementuok, ondoren, zoru gainean ordenatu zituen, Bruno Taut eta Martin Wagner arkitektoek Berlingo Britz auzoan egin zuten *Hufeisensiedlung* (1925-1931) izeneko urbanizazioaren aireko ikuspegi baten arabera. Luis Moya Gonzálezek urbanizazio horren berri ematen du bere testu interesgarri honetan: "La realidad de la vivienda obrera. Poblados de absorción, mínimos y dirigidos, y Unidades Vecinales de Absorción (U.V.A.s)".[4]

Hormei ondo erreparatzen badiegu, ohartuko gara inprimatutako edo eskuz idatzitako hainbat neurritako paper orriz estalita daudela. Kartel inprobisatu horiek Santiagok auzo horretan bizi izan zen garaian aurkitu eta bildu zituen iragarkiak dira, Madrilgo Vallecasi eta tradizionalki langile auzoak izan diren beste toki batzuei ere eragiten dien boom eta espekulazio immobiliarioa jasotzen dutenak. Kartelak inguruko auzo-lagunek etxebizitzak alokairuan eskainiz edo salgai jarriz eginiko oharrak dira eta agerian uzten dute egunetik egunera haziz doan espekulazio geldiezina.

Espazioa hutsik gelditu izan balitz ere, Rubén Santiagoren horma tapizatuarekin bakarrik, piezak ez zuen galduko bere zentzu osoa eta betea bere garaiarekin kritikoa den arte gisa, baina Narelle Jubelinen "povera maketa"ren presentziak gorputza eta errealitatea ematen die nolabait aldaketei eta Santiagok agerian utzi nahi dituen lurzoru-erabileraren gaineko espekulazio ekonomikoei. Gainera, maketak eskultura-objektuaren "aurkikuntzan" eta antolamendu librean bilduta dagoen poetikotasuna eskaintzen du, bai

eta eraikuntza utopikoen sorkuntza-prozesuan dagoen ludikotasuna eta pasioa ere.

Lan honen kasuan, lurzoruaren erabilerak arteari hasiera batean agindu zitzaizkion promesa guztiak betetzen ditu. Instalazioak zenbait erregistro ditu. Batetik, espazioaren barruan hirigintzari, politikari, ekonomiari eta, azken baten, gai sozial orori egindako kritika, eta espazio horrek bere ingurunearekin duen erlazioa; bestetik, ikerketa, abilezia formala, eta artista biek, beren arteko lankidetzan, eskulturaren eta arkitekturaren artean egin duten elkarrizketa. Hori guztia dela eta, uste dut obra horrekin bukatutzat eman ditzakedala, oraingoz behintzat, idatzi honetan lurzoruaren erabileraren inguruan egin ditudan gogoetak.

OHARRAK

1. Ikus "La escultura en el campo expandido" in Hal Foster (edit.), *La posmodernidad*. Bartzelona: Kairós, 1985, 59-74. or.
2. Honek pentsarazten digu arteak (edo artearen sistemak) elkarrekiko mesfidantzan oinarritutako erlazioak ezartzen dituela hasieran. Mesfidantza hori dela eta, batzuetan, erakusketa-gailuak erabiltzean, ezinbestekoa izaten da babes-hesiak eta abisu-kartelak jarri behar izatea, eta are obrari poliziak eta zaindarik gehitu behar izatea ere.
3. Gai honen inguruan testu bat idatzi nuen, 2009ko abuztuaren 25ean Salonkritiken argitaratua: "El espacio reflexionado: un cubo dentro de un cubo. Cildo Meireles en el MUAC".
4. Luis Moya González, "La realidad de la vivienda obrera. Poblados de absorción, mínimos y dirigidos, y Unidades Vecinales de Absorción (U.V.A.s)", in *La vivienda experimental. Concurso de viviendas experimentales de 1956*. Madril: COAM, 1997, 81-91. or.

Usos del suelo. Apuntes sobre gestos y prácticas en la escultura

María Virginia Jaua

Sabemos que la expresión común "uso del suelo" se refiere, en el ámbito del ordenamiento territorial de las sociedades occidentales, a las acciones, actividades e intervenciones que realizan los seres humanos sobre una superficie terrestre determinada con el fin de hacerla productiva, modificarla o mantenerla. De esta manera, mediante un estudio y un posterior dictamen, se asignan unos usos de las distintas superficies a la variedad de producciones y servicios asociados a las diversas actividades del ser humano, que se pueden resumir en los procesos de nacimiento, desarrollo y muerte.

La expresión, en principio acuñada para diferenciar el terreno rural del urbano o urbanizable, puede trasladarse, dando un salto un tanto audaz, al ámbito cultural con el objeto de situar y reflexionar acerca de ciertos cambios, giros o manifestaciones en la práctica del arte.

Como el número de actividades humanas posibles en los tres grandes tipos arriba mencionados es casi infinito, nos centraremos en el rubro "procesos de desarrollo" y en su interior abordaremos algunas prácticas del "uso del suelo" por parte de algunos artistas y escultores.

Antes de entrar propiamente en materia es importante hacer una precisión: aquí no se tratará de los artistas y las obras que sirvieron como soporte a la reflexión de Rosalind E. Krauss sobre la escultura,[1] aunque muchos de los ejemplos que ella analiza formen parte de la cultura visual de los artistas y las obras que aquí se expondrán. Obedece esta decisión, en primer lugar, a que considero que su texto, de referencia obligada, ha sido ya digerido y asimilado, por lo que poco más se puede añadir, y, en segundo lugar, a que las prácticas en las que se centra este ensayo son de menor escala, más humildes en sus proporciones y materiales, si bien, aun careciendo de pretensiones propiamente monumentales, arquitectónicas o paisajísticas, no por ello son menos ambiciosas.

Digamos entonces que lo que me gustaría compartir con los lectores es una suerte de genealogía personal —a la manera de apuntes— que revisa algunos gestos y prácticas de la producción de arte que se despliegan sobre el suelo con la misma naturalidad y la misma energía que ponen los niños al jugar a las canicas.

Al proponer esta asociación, que en principio podría parecer simple ocurrencia, no encontramos una única vinculación, sino todo un sistema de relaciones entre el juego y el arte. Empezaremos enumerando algunas.

Nuestro primer acercamiento al mundo ocurre en el espacio que el niño pequeño puede recorrer a gatas; más tarde, una vez que haya empezado a socializar, ensayará en los juegos las reglas y posibilidades de la vida. El juego de las canicas se lleva a cabo generalmente en la calle, en terrenos baldíos, en el patio de recreo o en los parques, pero también puede ser una actividad bajo techo, al abrigo de la lluvia. Normalmente en esta actividad intervienen varios participantes, pero también puede jugarse en solitario o en dúo. Igual que en el arte, el juego determina su propio *tiempo* y su propio *ser*; por esa razón su duración la determina siempre él mismo: dura lo que debe durar. Esta es quizás una de las principales características ontológicas que ambas actividades, arte y juego, comparten. Otro dato curioso es que a las canicas se las llame tanto en inglés como en francés 'mármoles' (*marbles* y *marbres*, respectivamente), el material preferido de la escultura clásica. Es así como el juego y la disciplina artística que utiliza ese material pueden también ser vistos hoy como objetos arqueológicos que dan testimonio de un pasado y que en cierto modo cimientan la historia y dan origen a algunos de los gestos del arte que nos interesan aquí.

Primer caso de uso del suelo: Duchamp

No es casual que Marcel Duchamp prefiriese la práctica del ajedrez a la artística. En 1917, cuando aún no había concluido la Primera Guerra Mundial, vivía en Nueva York, donde presentó los primeros trabajos que cambiarían de manera radical la historia del arte. Es la pasión lúdica de los gestos —crucial en lo que aquí examinamos— la que dio origen a la que, pienso, fue la primera escultura con un pleno *uso del suelo,* modesto, lúdico y de una enorme libertad asociada a la infancia: *Trébuchet*.

Suponemos que la imagen *(p. 6)* fue tomada en la casa-estudio del artista en Nueva York el mismo año de su concepción. El relato que ofrece la mitología vanguardista acerca del nacimiento de esta obra es que Duchamp había adquirido ese

Vista parcial de la instalación *(P) Punto de vista* (1982), Juan Luis Moraza. CVA. Colección Artium. Fotografía: Gert Voor in't Holt

perchero, que pensaba colgar de la pared para sus abrigos, pero que el síndrome del "preferiría no hacerlo" le hacía *trébucher* (tropezar) diariamente con el objeto abandonado sobre el piso (como le dicen al suelo al otro lado del océano). Estos percances cotidianos suscitaron el acto creativo de clavarlo al suelo de madera y darle un nombre que a la vez honra dos de sus grandes pasiones: el dar con algo (tropezar con una idea) y el ajedrez.

La pieza debió perderse o quizás permaneció clavada en el piso neoyorkino; años más tarde, en 1964, Duchamp la hizo reproducir a través de un galerista, quien encargó ocho copias. Una de ellas pudo verse en la exposición *Locus Solus - Impresiones de Raymond Roussel*, que se presentó en el MNCARS. Sin embargo, la modificación que realizaron los comisarios en el "uso de suelo" de la obra al colocarla sobre una peana desvirtuó por completo el sentido original de aquel tropiezo pionero del arte conceptual.

Este es el momento oportuno para comentar que existen dos dispositivos básicos por medio de los cuales el arte (o su sistema) usualmente ha presentado las obras de arte: la peana para la escultura y los objetos tridimensionales, y el marco para la pintura y más tarde para la fotografía. Estos dispositivos y sus variantes están al servicio de la obra y han solido utilizarse para presentarla, hacerla más visible, ennoblecerla, pero también para protegerla, tanto a ella como también a la persona que la contempla.[3]

Entre los artistas que han reflexionado acerca de estos elementos puestos "al servicio" del arte recordaremos, como ejemplo cercano a los lectores, el trabajo de CVA, el colectivo formado por Marisa Fernández y Juan Luis Moraza, que abordó estos temas, en particular lo relacionado con el marco, pero también la relación entre la pintura y la escultura. La instalación *(P) Punto de vista* (1982) podría servirnos para darnos una idea de hacia dónde llevaron sus investigaciones.

Esta cita nos obliga, para continuar con cierto orden imposible, a invocar a Jorge Oteiza, que fue, es y seguirá siendo el gran maestro de la escultura vasca, y no solo eso. Escribo esta frase y aun sin haberla terminado me pregunto si él estaría de acuerdo con ella y si no habría preferido que en lugar de escultura hubiese empleado *estatuaria*. Como dilucidar el enigma me resulta imposible, diré que su influencia en los artistas —sobre todo en los vascos— sigue siendo determinante hoy e incluso es una referencia para los más jóvenes.

Al investigar acerca del emplazamiento que Oteiza dio a sus trabajos me topé con otro enigma. (El arte está lleno de ellos, o debería estarlo.) Buscando una pieza suya que pudiera ser clave, di con la que considero una de las más emblemáticas: la que tituló *Caja vacía* (1958).

No es una obra que participe de una manera clara y evidente del "uso de suelo", de un juego infantil, y tampoco está hecha de materiales efímeros o humildes como el cartón, sino de acero, pero resulta clave dentro de esta línea que busca presentar diversos estudios de caso. Ahora lo veremos.

Esta "caja vacía", tal y como fue concebida y leída en el contexto de la obra de este artista, deconstruye la escultura, vacía la forma o el cuerpo de un cubo, como diría el propio Oteiza con otras palabras. Este proceso de *vaciamiento* multiplica y potencia los niveles de lectura y de significado. Vemos que ahí hay algo que hace posible y coherente la incorporación de "la caja vacía" a estas reflexiones. Pero también hay algo más. En dicho vaciamiento se da un proceso de "arquitecturizacion" de la obra, y esto nos abre otro camino, hace que se bifurque el sendero, pues junto al uso del suelo libre y lúdico de las canicas aparece el universo lúdico y ordenado de las maquetas. Recordemos que otro de los juegos infantiles preferidos es construir mundos con pequeños cubos hechos de madera y diversos materiales y objetos encontrados. Los niños construyen en el suelo mundos que ellos pueden abarcar y en los que pueden inventarse vidas. Más adelante veremos cómo la intención que hay detrás del ejercicio de elaborar maquetas también participa, lo mismo que el juego de las canicas, del uso del suelo en el arte.

En Oteiza, que fue una de las mentes más brillantes en el arte de la segunda mitad del siglo XX, convergen senderos cuya confluencia parecía imposible. La caja vacía funciona como retrato religioso, como caja metafísica, *uts-goikoa,* espacio interior que respira por ajuste dialéctico. Estas descripciones y funciones no son mías, provienen del artista, y para mí todas son como pequeñas "iluminaciones". Solo añadiría que cuando Oteiza apunta hacia la "desocupación" en la investigación artística está en proceso de cumplir la potencialidad absoluta del propio ejercicio creador.

Y tras decir esto, no cabe añadir nada más.

Veamos dos imágenes de la *Caja vacía* que me parecen curiosas por sus semejanzas y sus diferencias.

Jorge Oteiza, *Caja vacía* (1958), acero corten, 53,5 x 46 x 46 cm.
© Jorge Oteiza © Pilar Oteiza, A+V Agencia de Creadores Visuales, 2018

Como puede observarse, ambas fotografías son prácticamente idénticas. Sin embargo, en ellas subyace la diferencia (que, por otra parte, es intrínseca a la "vida" en el mundo). En la primera imagen la obra está sobre un pedestal muy pequeño e invisible a la vista *(p. 8)*. Se deduce su existencia gracias a la sombra que la pieza proyecta sobre la superficie horizontal. La obra parece que levita sobre este soporte y esto la dota de otro significado. Mientras que en la segunda alguien, no sabemos quién, si el artista, el comisario, el conservador o el fotógrafo, ha decido realizar la misma toma de la pieza sin ese dispositivo, colocándola directamente sobre la superficie. No podemos saber cuál fue la intención del artista y si dejó alguna instrucción con respecto a la instalación. Lo que quizás sí podemos afirmar es que se intuye que ambas posibilidades son válidas y que elegir una u otra queda a criterio de quien esté a cargo del relato que se quiera articular; depende de otras circunstancias que a veces escapan a la elaboración del discurso.

Segundo caso de uso de suelo: Gabriel Orozco

De la caja metafísica de Oteiza daremos otro salto cuántico hasta la *Caja de zapatos vacía* (1993) de Gabriel Orozco. Lo llamo salto cuántico porque entre las dos cajas se halla prácticamente toda la escultura en el campo expandido a la que aludimos al principio y de la que no trataremos aquí.

Estoy casi segura de que Oteiza influyó en el artista mexicano. Se trata de una intuición más que de un estudio comparativo de ambas propuestas. A veces pienso que una intuición es mucho más determinante y contundente por el sistema de relaciones que hace posible. Pienso que una intuición se parece al acto de levantar o recoger una piedra: una vez que la piedra elige a la persona a quien entregará su destino, su levantamiento es casi un hecho consumado. Pero no quiero desviarme...

Ambos artistas, Oteiza y Orozco, presentaron en su momento cajas vacías. Sin embargo, a pesar de que ambas son cajas y están en realidad vacías, su *vaciamiento* no se produce de la misma forma ni significan lo mismo. Intentaré exponer este asunto lo más claramente posible.

En el año 1993 Gabriel Orozco vivía en Nueva York. Hay aquí, y no es la única, una curiosa correspondencia con Duchamp, porque fue en esa ciudad donde el artista mexicano comenzó a hacer sus paseos urbanos y a propiciar sus primeros "tropiezos" artísticos. Un ejemplo que me gusta especialmente, y que me parece necesario citar, es *Island within an Island* (*Isla en la isla*). Esta pieza existe en forma de registro fotográfico *(p. 9)*.

Cabe imaginar que durante uno de sus paseos Orozco encontró un punto de vista y unas tablas y otros materiales propios de la escultura,



Gabriel Orozco, *Empty shoe box* (*Caja de zapatos vacía)*, 1993. Imagen: cortesía del artista y de kurimanzutto, Ciudad de México, Nueva York

y esta circunstancia lo invitó a hacer, en una de las ciudades más caras del mundo, un libre uso del suelo en el pleno y amplio sentido de la palabra. En su personal e íntimo *ready made* su gesto artístico coincide de manera brillante con el sendero abierto por el juego de las maquetas. Para mí este es quizás uno de los homenajes más hermosos y poéticos que se le hayan hecho a la ciudad de Nueva York antes de la caída de las Torres Gemelas.

En *Caja de zapatos vacía* —expuesta en 1993 en la Bienal de Venecia— participa, en cambio, de otros *usos de suelo* que estarían relacionados, desde mi punto de vista, no tanto con el *tropiezo* y el hallazgo sino con el *art system* y sus estrategias.

Caja de zapatos vacía es ni más ni menos lo que dice ser. Y aunque se presenta como algo tan simple, la pieza también posee su relato mítico. Se dice que estuvo colocada en el suelo y que había que reponerla una y otra vez, sea porque los visitantes de la Bienal la pisaban y pateaban, sea porque el personal de limpieza la tiraba a la basura creyendo que algún visitante se la había olvidado. El arte en la era del desecho y su reproductibilidad, se podría llamar.

La caja vacía de Orozco ya no es la caja metafísica de Oteiza ni tampoco el *Trébuchet* duchampiano. La aspiración a que el arte conteste las preguntas existenciales se ve representada en Orozco como una distopía del capitalismo y del consumo. Pero también del residuo y de un vaciamiento de significado. Sin embargo ese vaciamiento es más desencantado y no está motivado por los valores éticos que se contraponen a las guerras, la represión política o la censura, sino que, en el mejor de los casos, puede ser una crítica mordaz a lo desechable y banal de la propia creación humana.

Tampoco podemos dejar de pensar en los zapatos como artículo de consumo y de lujo en el contexto de una Nueva York y de un mundo que entraban en una nueva era económica. Con la irrupción del capitalismo salvaje y el neoliberalismo, los zapatos, lo mismo que el arte, nunca más volverían a ser lo mismo.

Con esta obra Orozco hizo su presentación "oficial" en el escaparate del arte. También significó un posicionamiento estético con el que desató dos reacciones opuestas: de un lado, el escándalo y, en consecuencia, el creciente rechazo del arte contemporáneo por parte de algunos sectores; del otro, la entrada por la puerta grande de Orozco en el arte contemporáneo y la adhesión al conceptual de países que, como México, hasta entonces habían estado muy marcados por una tradición pictórica.

Tercer caso de uso del suelo: Cildo Meireles

Otra pieza emblemática, tanto por su uso del suelo como por sus características, es *Cruzeiro do sul* (*Cruz del sur*, 1969), que consiste en un diminuto cubo de madera de 9 mm de lado, mitad de pino y mitad de roble, colocado en medio de un espacio vacío *(p. 10)*. Esta escultura prácticamente invisible, que el visitante, acostumbrado al gigantismo y a la preeminencia de la obra, corre el riesgo de no ver ni entender y el peligro de pisar, también se presentó "tirada" en el suelo de una habitación "casi" vacía. Desde ese lugar busca simbolizar la cosmogonía de los habitantes autóctonos de América, para quienes el frotamiento de esas dos maderas producía el fuego y daba origen al mundo.

La cruz del sur de Meireles cumple la promesa del encuentro perfecto entre ambos usos del suelo, el de la maqueta y el de la canica. Al verla de nuevo, recuerdo las bolitas transparentes y su posible relación con el desplazamiento de los átomos generadores y con la potencia de lo mínimo. Pero también me hace recordar la maqueta, y que este minúsculo cubo es capaz de cuestionar y desmontar el discurso arquitectónico de cualquier cubo blanco que lo albergue.[3]

Cuarto caso de uso del suelo: la escultura-acción

La relación de la escultora Elena Aitzkoa con el suelo es profunda. Tan antigua como la de las mujeres de las ancestrales culturas americanas, orientales y africanas. Cuando, por ejemplo, evocamos las imágenes del mercado de algún pueblo siempre aparecen las mujeres sentadas en el suelo, como un grupo de pequeñas montañas, que despliegan en las faldas sus mercancías. En esas imágenes que ahora acuden a nuestra mente suelen aparecer muchos colores por la riqueza cromática de los productos que ellas ofrecen y de los diversos tejidos que portan. Pero si afinamos nuestros recuerdos, también podemos ver que cerca de ellas siempre se puede ver alguna pista de los contenedores que emplean para el transporte de las mercancías: bolsa, saco, costal, maleta, mochila, cajas, cartones. Porque la actividad de las mujeres en los mercados fijos o ambulantes siempre va asociada a un desplazamiento aunque su naturaleza las atraiga siempre hacia el suelo. Ellas son la demostración viva de que las montañas pueden desplazarse.

Al observar los trabajos de la artista vasca podríamos afirmar que su relación con el suelo es de la misma estirpe que la de las mujeres de culturas tan antiguas y tan diferentes: de energía telúrica y arcaica. Aitzkoa no solo hace uso del suelo para producir sus piezas sino que, además de servirle de taller, de mesa y de so-

Elena Aitzkoa, performance *Opera building*, del proyecto *Headscarfs Close to the Ground*. OSLO PILOT 2016.
Fotografía: Niklas Lello

porte, el suelo es el espacio donde lleva a cabo la acción que para ella es intrínseca a la escultura y donde exhibe y da vida a sus piezas por medio de las acciones performáticas que ella les dedica: moverse a su alrededor, recitar o incluso cantar.

Quizás en su trabajo hay algo de animismo: algo nos hace pensar que ella busca darle vida a sus obras mediante esos ritos personales que involucran el movimiento, el sonido y la palabra.

Aitzkoa ha conseguido, a través de su relación con el entorno de su pueblo alavés y de sus acciones, enriquecer su quehacer escultórico. A él incorpora el dibujo, la pintura y la recopilación de diversos objetos cotidianos, derivados de la civilización, como telas, libros o peines, pero también de elementos que solo produce la naturaleza, como piedras, fósiles y troncos, así como de muchas otras cosas que son imposibles de identificar por el hecho de estar ocultas o envueltas. Con todos estos elementos ella construye sus esculturas, que forman una suerte de bultos que una vez terminados dispone sobre el suelo con un cierto orden.

La disposición de las obras sobre el suelo se lleva a cabo no solo en los espacios del sistema del arte —galería o museo— sino también en los espacios exteriores, tanto urbanos —calle, muelle, estación— como naturales. Curiosamente, los más pequeños de esos bultos recuerdan a los que antaño podían hacer los niños cuando, tras sufrir alguna reprimenda, recogían sus pocas pertenencias en un pañuelo atravesado con un palo y simulaban abandonar la casa; pero cuando son medianos o más grandes se asemejan a los que hacen las mujeres de diversas culturas —a las que ya hemos aludido— para transportar las mercancías que más tarde despliegan ante los ojos curiosos de los paseantes y compradores.

Quinto y último caso: *Suelo y pared*

De los casos presentados hasta ahora *Suelo y pared* es el más reciente. Lo visité en un par de ocasiones y lo recorrí junto con los artistas. Se trata del trabajo conjunto que llevaron a cabo Narelle Jubelin y Rubén Santiago en el espacio ABM, en el municipio madrileño de Vallecas.

Este trabajo, de 2018, consiste en una instalación a dúo en la que Jubelin situaba su trabajo sobre el suelo del espacio, mientras que Santiago disponía su intervención en las paredes: un despliegue que cuestiona los usos y abusos del suelo en tiempos de una nueva burbuja inmobiliaria.

En las imágenes apreciamos una vista general de la instalación y a partir de ella podemos calcular más o menos su escala. Sin embargo no es posible abarcarla entera en una sola toma debido a que la planta del espacio es irregular; tuvimos, por tanto, que elegir tomas que ofrecieran la idea más completa. Asimismo descartamos la vista cenital de la maqueta de Jubelin para que

Narelle Jubelin y Rubén Santiago, *Suelo y pared*, vista de la instalación en ABM, Vallecas, 2018

también apareciera la intervención de Santiago en las paredes del local.

La pieza de Jubelin se titula *NJABM04 Suelo* y está hecha de diversos elementos de embalaje de cartón y papel encontrados en la calle. Posteriormente se ordenaron sobre el piso según una fotografía aérea de la urbanización *Hufeisensiedlung,* en Berlín-Britz*,* de Bruno Taut y Martin Wagner (1925-1931), citada por Luis Moya González en su interesante texto "La realidad de la vivienda obrera. Poblados de absorción, mínimos y dirigidos, y Unidades Vecinales de Absorción (U.V.A.s)".[4]

Si nos fijamos, también vemos que las paredes están recubiertas con diferentes hojas de papel de distintos tamaños, impresas o escritas a mano. Estos carteles improvisados son los distintos anuncios que Santiago fue encontrando y recopilando durante el tiempo que vivió en el barrio y que registran el *boom* y la especulación inmobiliaria que también afecta a barrios tradicionalmente obreros como Vallecas. Los carteles son los avisos en los que los vecinos de la zona ofrecen viviendas para alquilar y vender y en ellos se puede leer la creciente e imparable especulación.

Si el espacio se hubiera quedado vacío solo con el tapizado de las paredes de Rubén Santiago, la pieza ya habría tenido un sentido completo y cumplido de arte crítico de su tiempo, pero la presencia de la "maqueta povera" de Narelle Jubelin de alguna manera da cuerpo y realidad a los cambios y a las especulaciones económicas del uso del suelo que Santiago quiere evidenciar. Además, la maqueta aporta lo poético que se concentra en el "hallazgo" y la libre disposición del objeto escultórico, así como lo lúdico y lo apasionante en la concepción de las construcciones utópicas.

En el caso de este trabajo el uso del suelo cumple todas las promesas que en principio le fueron encomendadas al arte. La instalación posee varios registros. De un lado, la crítica sobre el tema urbano, político, económico, y en suma social, que ocurre dentro del espacio y su relación con el entorno; del otro, la investigación, el acierto formal y el diálogo entre escultura y arquitectura con el que ambos artistas resuelven la colaboración. Por todo ello pienso que es con esta obra con la que las reflexiones sobre los usos del suelo desarrolladas en este escrito podrían por ahora concluir.

NOTAS

1. Véase "La escultura en el campo expandido" en Hal Foster (edit.), *La posmodernidad.* Barcelona: Kairós, 1985, pp. 59-74.
2. Esto nos hace pensar que a veces el arte (o su sistema) establece de entrada unas relaciones basadas en la desconfianza mutua. Esta provoca en ocasiones que al usar los dispositivos de exhibición sea necesario poner barreras de protección y carteles de advertencia, o que incluso se añadan a las obras policías y vigilantes.
3. Sobre este tema escribí un texto, "El espacio reflexionado: un cubo dentro de un cubo. Cildo Meireles en el MUAC", que se publicó en Salonkritik el 25 de agosto de 2009.
4. Luis Moya González, "La realidad de la vivienda obrera. Poblados de absorción, mínimos y dirigidos, y Unidades Vecinales de Absorción (U.V.A.s)", en *La vivienda experimental. Concurso de viviendas experimentales de 1956*. Madrid: COAM, 1997, pp. 81-91.

LURZORUA

PEDRO DE LLANO

I

1980ko eta 1990eko hamarkadetako Euskal Herriko testuinguru artistikoan harrera bereziki bizia egin zitzaien minimalaren eta performancearen diskurtsoei, baita, atzerago joz gero, konstruktibismoarenari ere. Lehenbizi, "Euskal Eskultura Berria" zeritzon belaunaldiari (Badiola, Bados, Fernández, Irazu, Moraza…); aurrerago, berriz, beste artista batzuei (Sergio Prego eta Itziar Okariz, adibidez) zeinek elementu performatiboak txertatu baitzituzten beren lanetan.

Prozesu horren alderdirik interesgarrienetako bat hau izan zen: eskulturaren osagai gisara lurzoruak hartu zuen protagonismoa, bai maila formalean bai sinbolikoan. Baina, iparramerikarrek ez bezala, euskal artistek eskulturan eta idulkiaren "arazoan" ardaztuta eutsi zioten erreferentzia-esparruari; iparramerikarrek, berriz, pintura abstraktuaren kritika eta dekonstrukzioa oinarri nagusi zituztela proposatu zuten eztabaida hori. Robert Morrisek, Andy Warholek eta beste zenbait artistak abiarazi zuten pinturaren "desublimazio" prozesuaren aurrean, Euskadiko artistek objektuaren eta erreferentzia-esparru hedatu baten, hots, arkitekturaren, arteko balizko artikulazioekin esperimentatzeari ekin zioten eta elementu eusleak (idulkia) elementu sostengatuekin (obra) fusionatzeari. Hala azaldu zuen Rosalind Kraussek *Inkontziente optikoa* bere liburuan (1993).[1] Azkenean ondorio bertsuetara iritsi ziren, abiapuntu desberdinetatik: bata, batez ere prozesuala eta pinturaren konbentzioei lotua; bestea, batik bat objektuala eta eskultura abstraktu modernoari atxikia. Kasu bietan, indartsua zen ilusionismoaren aurkako jarrera.

1980ko hamarkadako eztabaida horiek ulertzeko funtsezko lan bat hau dugu: *Límite (implosión)* (1982) instalazioa, María Luisa Fernández eta Juan Luis Morazaren Zaintza Artistikoko Batzordeak (Comité de Vigilancia Artística, CVA) egina. Ezpal gisara barreiatutako marko- eta moldura-ertz ugarik, idulki bikoitz batek eta urre-koloreko esfera batek osatzen dute obra hori. Hein handi batean, 1980ko hamarkadan Espainian gertatzen ari zen fenomeno baten kontrako erreakzioa izan zen lan hori, eta ironiarik ere ez zuen falta; "benetako pinturara" itzultzeaz ari gara. Zentzurik literalenetik eta apaingarrienetik begiratzen zion pinturari mugimendu hark, eta garrantzi handia ematen zion eremu bisualetik materialera aldatzeari, irudiaren eta gorputzaren, plano bertikalaren eta horizontalaren arteko anbiguotasunari, bai eta minimalismoak ezaugarri izan zuen beste honi ere: arkitekturaren eta ikuslearen aktibazioari. *Límite (implosión)* lana izan zen Fernández eta Morazaren ibilbide independenteen abiapuntua, non biek aztertu baitzuten sakonki egungo eskulturaren idulkiaren krisia eta horrek zer ondorio dakartzan.

Garbi ikusten da hori María Luisa Fernándezen lehen lanetan: zoruarekin zuzeneko harremanean dauden zurezko piezek, aldi berean, ez diote uko egiten irakurketa-maila bati non beste errealitate batzuk —bertako arkitektura, paisaia, lurraldea…—gogorarazten dituzten tinduen bitartez materialaren testura eta ezaugarriak nabarmentzen diren. Adibidez, *Mar Rojo* (1986) eta *Lo semejante, un Dios lo junta siempre* (1987) lanez ari naiz. Obra horietan, kritika modernoaren sektore jakin batentzat anatema edo sakrilegioa izan den eskulturaren interpretazioko elementu bisual horrekin batera, obrei espazioan halako jarraitutasun birtual edo alegiazko bat ematen diela dirudien mugimendu bat ere atzematen da; kasu batean, kota-joko sotil baten bidez, eta bestean, berriz, idulki integratu baina ezegonkor gisara diharduten ziri metalikoen bidez.

Gauza jakina da Euskal Eskultura Berriarekin lotzen ditugun artistek etengabe hitz egin zutela elkarrekin beren obretan islatzen diren zenbait gairi buruz. Besteak beste, Jorge Oteizarekiko eta modernitatearekiko harreman "edipikoa", idulkiaren galera eta eskulturaren hedapena, eta gai espezifikoago batzuk (eskulturan koloreak erabiltzearen legitimotasuna, adibidez) izan zituzten hizpide. Haietako asko ageri dira Txomin Badiolaren 80ko hamarkadako obran, non, Oteizarekin zuzeneko harremana ezartzeaz gain, bide neokonstruktibista bat proposatzen duen. Badiolaren 1980ko hamarkadako obraren ezaugarri garrantzitsuetako bat dugu haren eboluzioa abstrakzioaren eremuko planteamenduetatik eta, horrenbestez, objektuaren autonomiarekiko zuen ikuspegitik, espazio arkitektonikoaren elkarreraginean jarduten zuten obretarantz, zoruarekin nahiz paretarekin loturak sortuz (1981eko *Serie negra*, adibidez, edo konstruktibismoari atxikiagoak ziren geroagoko beste batzuk: *E. L. el Ruso*, 1987, *Pieza insatisfecha*, 1987, eta *E. L. el Ruso*, 1987-1988). Kasu hartan, Oteizak eta Anthony Carok konstruktibistekin eta minimalistekin izan zuten lehia bigarren aipatu ditugunek irabazi zuten. Hamarkada haren amaiera aldera —90ekoan murgildurik jada— prozesu hark lengoaia figuratibo eta antzerki-tankerako batera eraman zuen Badiola. Herri-kulturaren aipamen ugari izateaz gain, bere lana ikuslearen espazioarekiko jokabidea baldintzatzen zuten gailuez edo instalazioez baliatzen zen.

Bai Fernández, bai Badiolari antzematen zitzaien idulkirik gabeko gaitasun espazial eta bolumetrikoen eta bi dimentsioko baliabideen erregistro bisual eta figuratiboen arteko dialektika bat, pinturan eta haren paisaia-erreferentzietan lehenbizikoari, argazkietan eta serigrafietan bigarrenari. Beste ekarpen interesgarri bat Juan Luis Morazak zenbait obraren bidez egin zuena dugu: *Éxtasis, status, estatua* (1994) eta *Suelo imperial (fragmento)* (1994), besteak beste. Lan horien bitartez, elementu adierazgarriak —sarritan gorputzari lotuak— txertatzen ditu Morazak, zeinak 80ko hamarkadan ere garatua baitzuen lengoaia abstraktu bat (*Lithos*, 1987). Lehenbizikoa gizonezko eta emakumezkoentzako oinetakoen takoi-molde batzuen bilduma dugu. Garai hartako Espainiako eskulturagintzan berritzailea zen material batez eginak ziren moldeak: erretxina sintetikoa. Zoruan buruz behera jartzen dira takoiak, zeharrargiak, 420 x 400 cm-ko angeluzuzen bat osatzen dutela. Objektuak xumeak izan arren, bereziki liluragarria da begientzat haien altuera eta argiak sortzen dituen distirak. Bigarren hurbilketa batean, berriz, gorputz absenteak dakartza gogora obrak. Tituluak, azkenik, sexuen arteko botere-harremanak aipatzen ditu.[2]

Hiru artista horien lanek ondo asko erakusten digute nola kolonizatu zuten zorua eta nola eman zioten bizkarra idulkiari 1980ko eta 90eko hamarkadetako euskal artistek, berrikitan zenbait artista gazteagok egin dutenaren aitzindari gisara.

II

Egin diezaiogun begiratu bat June Cresporen *Cosa y tú* (2015) erakusketari, adibidez. *Cheek to Cheek* (Elkarren ondo-ondoan) deiturapean, zenbait lan jarri zituen ikusgai artistak erakusketa hartan, non pisua eta oreka ziren obrak zoruarekin uztartzeko artikulazio-elementu nagusiak, eta beste hiru eskultura, zeinek irudi fotografikoa eta publizitarioa zituzten osagaien artean. Interesgarria da bi lan-multzo haien arteko elkarrizketa: batek tentsio horizontala sortzen zuen, eskulturek indar ikusezin baten presioa jasaten ariko balira bezala; besteak, berriz, sabairantz tentetzen ziren, burdinazko plano ortogonalak (*De nuevo al frente*, 2015) edo segailak, dardarkariak eta ezegonkorrak hedatuz: *Daytime Regime (Brigitte)*, 2015.

Gorputz-zatien (hankak, aldakak, ipurdiak…) hormigoizko eta zementuzko zenbait molde-lanek osatzen dute *Cheek to Cheek* seriea. Bilboko denda txinatar batean kasualitatez aurkitu zuen emakume itxurako maniki batetik hartu zituen Crespok "gorpuzki"

June Crespo, *Cosa y tú* erakusketaren ikuspegi orokorra, CarrerasMugica galeria, 2015. Argazkia: CarrerasMugica-k utzia

Elena Aitzkoa, *Conejos*, 2016. Argazkia: Dani Mera

haiek.[3] Zuzenean lurrean daude jarrita obrak, etzanda baleude bezala, eta elkarren gainean ipinita dauden bi zati edo gehiagotan artikulatzen dira. Arropa estuekin (galtza bakeroak, bainujantziak…) "jantzi" ditu artistak gorputz-zatiak, haien formak nabarmentzearren, denda "merke" batean zuten jatorrizko eginkizunaren harmoniarik gabeko oihartzun modura. Eskultura tektonikoak dira, zakartasun-kutsu bat dutenak, non garbi bereizten diren harriaren eta erigarritasunaren arteko halako efektu arraro bat eragiten duten gorputz bentzutu eta elbarrituaren irudiak, batetik, eta materia bizigabe eta gris baten puska bat estaltzearen keinu dibertigarria eta absurdoa.

Mutur batean estatua klasikoak —zatikatuak eta osagabeak, haietako asko— eta bestean zenbait artista garaikideren lana —Robert Gober iparramerikarrarena, adibidez, zeinak 90eko hamarkadaren hasieran gorputz etzanez osatutako zenbait obra-serie egin zituen argizariz eta beste material batzuez— dituen diskurtso historiko eta artistiko bat dakarzkigu gogora *Cheek to Cheek*-ek. Cresporen obran, zementuaren laztasunak arkitekturaren tankera hartzen du, eta marmolaren leuntasunarekin kontrastatzen da, etzaneko posizioa greziar edo erromatar irudien bertikaltasunari kontrajartzen zaion bezala. Kasu horretan, gertuago dago Crespo generoari eta doilorkeriari buruzko diskurtsoetatik, zeinek hies-epidemiak eragin zuen testuinguru dramatiko hartan Goberrek egindako obra haiek dituzten jatorri, inongo jarrera nostalgikotik baino. Azkenik, hona hemen artistari berari deigarria iruditzen zaion beste zer bat: ikusleak pieza horiekiko garatzen duen jokabide fenomenologikoa eta harreman psikodinamikoa, liluraren eta higuinaren arteko ibilbide bat sortzen baita haien inguruan.[4]

Cheek to Cheek serieko lanak ez bezala, June Crespok 2015eko erakusketa horretara eraman zituen gainerako eskulturek hau zuten erkide: oinarri gisara ziharduten zementuzko molde batzuk (X edo Z formakoak, egitura ortogonal eta abstraktua gogorarazi nahirik bezala). Haietako bat metroa baino gehiago altxatzen zen lurretik, eta txikiagoak ziren gainerakoak. Bazuten beste elementu komun bat ere: 1970eko moda-aldizkariak erabili zituen artistak elementu eskultoriko gisa; obraren osagai ez ezik, multzo osoaren itxura eta irudikapena ere bazen elementu hura. Obra horietan publizitate-argazkiak erabili izana bat zetorren aurrekoetan arropa erabili izanarekin, eta lan haien izaera abstraktua leuntzen edo zehazten zuen bulkada figuratibo beraren emaitza zen. Honenbestez, nolabaiteko lehia bat sortzen zen artelanaren fisikotasun materialaren eta irudiari eta artifizioari gehiago begiratzen dion kultura garaikidearen artean.

Elena Aitzkoa dugu zorua eskulturaren osagai gisara jorratu duen beste artista bat. Deigarria da bere kasua, June Crespo atxikirik dagoen aurreko belaunaldiaren aldean oso bestelako lengoaia materiala eskaintzen baitu. Jarduera industrialetik eskuzkora garamatza Aitzkoak, estetika gogor eta soil batetik koloretsua eta itxuraz xaloa den beste batera. Garrantzi handia du eskulanak obra horietan, baina edozein birtuosismo teknikotik ihesi dabil beti artista, eta lan bakoitzaren berezkotasuna gordetzen du. Izaera ludiko horrek Rachel Harrison artista iparramerikarraren planteamendu eta baliabide batzuk gogorarazten ditu.

2016an Carreras Mugica galerian egin zen *célula, gorrión, lago rupestre* erakusketa dugu erreferentzia. Izenburuak berak —zelula, artatxoria, haitzetako lakua— oso bestelako unibertso batera garamatza: Aitzkoaren mundu-ikuskerari gehiago eragiten diote paisaiak eta naturak, baita bere oroimenak eta mitologia subjektiboak ere (fantastikoa), hiriko esperientziak edo hedabideen kulturaren presioak baino. *Conejos*, *Lendialakua* eta *Subo a tu monte* lanak, guztiak 2016koak, erakargarriak zaizkie begiei; enigmatikoak dira, eta arras nagusitzen dira forma apetatsuak, lanen eskala txikia izan arren, eta hauskorra eta delikatua haien itxura. Objektu konplexu eta korapilatsuak dira, adibidez, *Conejos* obrakoak, non igeltsudun oihal margotuz egindako bolumen obalatu edo katilu-, maskor- edo saski-formako batek barruan dituen beste elementu batzuen euskarri gisa jarduten duen. Edo, artistak dioen bezala, "barruan bizi diren" elementuez jardun behar genuke.[5] Obra horri dagokionez, zehazki, hauek dira elementuak: kontratxapatuzko ohol

bat, olioa, poesia-liburu bat, harriak, galtzerdiak, oihalezko sokak, oihalezko lore bat, kamiseta baten pusketa bat eta urez erdiraino betetako ur-poto bat. Ezkutatzearen poetika hori Ángel Badosen lanean ikusten denaren antzekoa da. Postminimalismoaren alorreko zenbait artistaren antzik ere hartzen zaio —Barry Le Va-rena, adibidez—, Aitzkoaren lan-prozesuan sakabanatuta eta kontzentratuta dauden gaien artean sorten den harremanagatik, bai eta hondar-materialekiko edo soberakinekiko sentikortasunagatik ere, emaitza formalak oso desberdinak badira ere.

Presentzia materialaz gain, izaera literarioa edo narratiboa ere badute Elena Aitzkoaren lan horiek, alegiazkoa, eta artistak berak azpimarratu egiten du izaera hori bere performanceetan. 2013an, *Nuestro amor nació en la edad media* (Artium, Gasteiz) izeneko lana egin zuen, non bere eskulturetako batzuekin interakzioan jarduten zen. Artistak txistua jotzen zuen, kanta-marmarrean jarduten eta poesiak errezitatzen aretoan oinez, korrika eta saltoka zebilen bitartean (aldez aurretik "delizien lorategi" primitibo eta surreal moduko bat bihurtua zuen aretoa).[6] Irakurtzen zuen testuaren zati handi batek, berriz, iraganeko garai bat zekarren gogora, izenburutik hasita. Badirudi iragan horrek baduela loturaren bat, artistaren obran, hasiera-uneren batekin, non sorkuntza fikzioaren, asmakizunaren sinonimo zen.

Elena Aitzkoak eta Josu Bilbaok elkarrekin partekatzen dute materiaren eta lengoaiaren arteko harremanekiko interesa. Kasu bietan, hizkuntza ezezagun baten partikulak dirudite haien eskulturek, eta ezin jakin hizkuntza hori jada sortua den edo sortzeko dagoen. Josu Bilbaok 2016an CarrerasMugica galerian egin zuen *Etórridxe* erakusketan aurkeztu zituen obrei erreparatu diet bereziki; izan ere, haren eskultura delikatu haietako asko hondakinak edo material pobreak erabiliz egindako keinu leunak baino ez ziren, jatorrizko egoeratik apenas urruntzen zirenak. Alde horretatik Fernanda Gomes brasildarraren lana gogorarazten didate. Gainera, keinu horiek errepikatu egiten dira, baina ez dira inoiz berdinak: zirkuluen, kurben, zilindroen aldakuntzak, piramide edo kutxa moduko batzuk… Hizkuntza-artikulazioan ere halaxe gertatzen da, Saussurez geroztik dakigunez: errepikapena eta desberdintasuna. Hizkuntza ezkutuko bat gogorarazten dute Bilbaoren eskulturek —Aitzkoarenek ere bai— hitz- edo esaldi-zatiak ematen baitute. Zaila da isolatuta irudikatzea eskulturak, lurrean haien artean sortzen den elkarrizketari edo harremanari uko eginez, eremu arkitektoniko jakin batekiko erreakzio gisara.

Bartzelonako Halfhousen 2016an egin zuen *Esaná* erakusketarako idatzi zuen testuan hau zioen Josu Bilbaok: "Munduaren sorrera hizkuntzaren bidez, drama etnografikoetatik kanpo. Orokorretik espezifikora; osotasunetik partera; abstraktutik konkretura: zehaztugabetik zehatzera; infinitutik finitura."[7] Eta beste hau ere bazioen: "Lurraren ahotsa nire ahotsa da orain. Haren bidez biziko naiz, behin eta berriz, Nire aurrean, nire atzean, nire azpian, nire gainetik. Irten eta lekua utzi, behin eta berriro, haizeari."

Lurzorua, orduan, hitzaren substratu gisara ageri da; beharbada, horregatik erabaki zuen artistak zuzenean lurraren gainean jartzea lanak. Agian, lanak egiteko erabilitako materialak ere lurretik zetozelako jarri zituen han. CarrerasMugicako erakusketan, zurpusketak ziren, kontratxapazko oholak, zuhaitz-azalak… Landare-erreinuko elementuak gehienak, beren prozesu morfogenetikoan —gutxi-asko aspaldikoa— fotosintesiaren eta hazarazten eta garatzen dituen *arnasaren* hatsa zizelkatua daramatenak. Gizakien artean hizkuntza eta hizketa bezala, zeinak jaioberriaren fase guturalean hasten baitira eratzen (lehen hatsetik bertatik), ingurunearekiko interakziotik abiatuta, soinuak hautatuz (adierazleak) eskaintzen zaizkien aukera infinituen artetik, sarritan hizkuntza bat baino gehiago daudelarik elkarbizitzen. Bilbaoren kasuan, ez du bere lankideek bezala ikusten zorua: "lurraren" eta han bizi diren taldeen irudi moduko bat da harentzat zorua, emankorra eta sortzailea. Hurbiltze horrek intuitiboagoa dirudi galeriako erakusketan, eta Halhouse egoitzako proiektuan argiago nabarmendu zen. Proiektu horretarako idatzi zuen, hain zuzen ere, aipatutako testua. Han, askoz ere berehalagokoa zen materialen arteko lotura

—zementua, landareak, harriak, enborrak, adreiluak…, haietako batzuk "brancusitar" samarrak (abstrakzioaren eta antropomorfismoaren arteko erdibidean)— eta piezetako askok han bertan "hazi" zirela ematen zuten eta horregatik zeuden kamuflatuak lorategian, ia-ia ezkutaturik.

Horri lotutako beste gai bati buruzko gogoeta eragin dit irakurketak (subjektiboegia eta sentimentalegia, agian): artista gazteen lur-zaletasun horrek ba ote zerikusirik ikuspegi bertikalak aspertu edo nekatu izanarekin? Horrenbeste pantaila ikustearekin, haietan etengabe ageri den eta hirietako ekosistema bisuala kutsatzen duten publizitatearekin nazkatuta ote? "Behera" begiratze horrek esperientziaren fisikotasuna, "hemen eta orain" kontzeptua berreskuratzeko ahalegina adierazten ote?

Entsegu hau amaitu aurretik, azken artista bat aipatu nahi nuke: Daniel Llaría. Izan ere, hark ere zoruari buruzko ikuspegi desberdin eta original bat dakarkigu; zehazki, *The Get-Rich* serieko lanen bidez. 2017an aurkeztu zuen lan hori, New Yorkeko Parsons eskolan, MFA Thesis titulua eskuratzeko. Pieza haien guztien ezaugarri komuna hau zen: zarpail bihurtutako arropen eta zenbait elementu elektronikoren bilgarriekin egindako hormigoizko moldeen arteko konbinazioa. Zoladuraren edo espaloi baten zatiak ziruditen moldeek, abstrakzio-prozesu baten pean egonak baitziren: zintzilik zeuden euskarri zituzten janzkietatik (haietako asko jaka koloretsuak, kirol-kamisetak edo prakak…, garbi bereiztea ez zen erraza, hain zeuden urratuak); janzkiak, berriz, arkitekturatik zintzilik zeuden zingiletan jarriak. Irmoa eta bortitza zen tentsiopean eta oreka ezegonkorrean zeuden elementu haien efektua, eta noiznahi eror zitezkeela ematen zuen.

Lan-serie hori deskribatzeko idatzi zuen testuan egungo kapitalismoak ezartzen dituen bizi-kondizioak eta norbanakoaren kokapenik eza aipatzen zituen Llaríak, batez ere Mendebaldeko gizon zuriarena.[8] Eta horrek badu nolabaiteko lotura aurreko galderekin, egungo hiri-esperientziari eta iragarki, irudi likido eta mezu ideologikoen bidez norbanakoak etengabe jasaten duen jazarpenari buruzkoekin alegia. Llaríaren eskulturak gorputzak dira, ingurune birtual eta linguistiko horien aurka erreakzionatu dutenak. Mugaraino eramandako gorputzak, Erdi Aroko tortura batean bezala luzatuak eta zatikatuak. Digitalizazioaren tirania abstraktuaren aurkako borrokatik bizirik ateratzen saiatzen diren gorputzak. Honenbestez, erabat desitxuratuta geratzen da haren lanean kirol-arropa arin eta koloretsu haiek gogorarazi behar luketen bizimodu osasungarria. Etorkizunak ekar lezakeen itxaropen edo ilusio oro, tituluan aipatzen den aberastasun materialaren bidezko edozein aurrerabide- eta zoriontasun-aukera hormigoizko blokeen eta grabitatearen pisuak sabotatzen du. Zalantzarik gabe, obra dramatikoak dira. Gizatiarrak. Horregatik, umorez eta sarkasmoz hornituak.

Beste artista batzuek ez bezala (June Crespo, adibidez), Llaríak ez du erabiltzen zorua hain nabarmenki; hala eta guztiz ere, beste era bateko loturak ditu Cresporekin eskulturara, abstrakziora eta figuraziora hurbiltzeko bidean. Llaríak nahiago du tentsio edo dialektika bat sortu plano bertikalaren berezko ikusgarritasunaren eta horizontalaren materialtasunaren artean, irudiaren (alegiazkoa) eta gorputzaren artean. Paretan baieztatzen dena (mugimendua, dinamismoa, bizitasuna) ukatu egiten da lurrean (gelditasuna, estatikotasuna, adorerik eza).

Lau artista horien lanak elkarrekin konparatuta, deigarria egin zait sorkuntzaren eta suntsipenaren arteko halako dialektika moduko bat. Bilbaoren eta Aitzkoaren lanak lurrean jarrita daude, baina gorako bulkada bizi bat dute, grabitatearen aurkako lehian. Cresporenak eta Llaríarenak, aldiz, hondamendiaren eta desagertzearen estetika batez jantziak daude, baten lanei falta zaizkien gorputz-ataletan eta bestearen hutsuneetan ongi atzematen denez. Lehenbizikoak naturatik hurbilago daude bigarrenarenak baino, zeinak hiriko bizimodua modu dekadente batean islatzen baitute. Nolanahi dela ere, guztiak dira kalearen eta pantailaren, mundu errealaren eta mundu birtualaren arteko bereizketaren

esperientzia garaikide baten adierazgarri. Gorputzaren, ingurune materialaren eta begiradaren artean kokatzen diren obrak dira, ikusi bezainbat sentitu egiten direnak.

III

Artelanak —eskulturak, batez ere— kokatzeko eta haiek jartzeko moduei buruz zenbait euskal artista ikertzen ari diren gaiek lotura estua dute hasieran aipatu dudan tradizio eta testuinguru kultural oso jakin batekin. Alabaina, haien jarreretako batzuek aurkitzen dute oihartzunik beste leku batzuetan lanean ari diren beren belaunaldi bereko artisten artean; beste jarrera batzuek, aldiz, ez horrenbeste.

Esate baterako, hautatu ditudan lau artistetako batek berak ere ez du interesik eskulturatradizio "hedatuan" (performatibotasunean, alegia) eta, horrenbestez, ikuslearen partaidetzan. Agian, Elena Aitzkoa da salbuespena; dena dela, haren kasuan performatibotasuna ez dator hainbeste objekturen ezaugarri material edo fenomenologikoetatik, baizik eta haien eta euren edukien artean sortzen diren loturetatik. Alde horretatik, ez dira Félix González-Torres artistaren minimalismoaren zuzeneko oinordekoak. Aipatutako artistak mugimendua antolatzen zuen bere obren inguruan, karamelu "alfonbrak" edo argazki-piloak prestatuz, eta ikusleei gogotsu parte hartzeko eskatzen zien, irudimenaz landa. Aldiz, beste euskal artista batzuen lanetan nabari dira performatibotasunarekiko eta partaidetzarekiko zaletasuna —adibidez, Sergio Prego eta Maider Lópezen obretan—, baina ez González-Torresen ikuspegi beretik begiratuta.

Bestalde, artista horietako batek berak ere ez du lurraren kontzeptua lekuarenarekin lotzeko asmorik, ez eta eskulturaren "berariazko lekuari" buruzko teoriekin ere, Josu Bilbaok izan ezik —agian—, haren lanetan nabari baita lotura zuzenagoa testuinguru arkitektoniko, hiritar eta instituzional jakin batzuekin. Antzeko zerbait sumatzen da Mauro Cerqueira portugaldarraren eta Renato Leotta italiarraren obran, biek ere leku jakin batzuk gogorarazten dituzten eskultura autonomoen edo instalazioen multzoak eratzen baitituzte. Lehenbizi aipatu dugunak erakusketa bat egin zuen (*Ter que falar*, Hitz egin beharra), 2013an, Madrilgo Heinrich Ehrhardt galerian. Zenbait galtzada-harri jarri zituen artistak zoruan, material galkorrez (xaboia, Portugalgo antzinako ezkutuen txanponak eta billeteak) egindako eskultura txiki batzuen euskarri izan zitezen. Estetikoki autonomoak baziren ere, konposizio haiek artista bizi den hiriak, Portok, izan dituen aldaketa urbanistikoak, sozialak eta ekonomikoak gogorarazten dituzte. Leottak, berriz, duela gutxi aurkeztu du instalazio bat, *Notte di San Lorenzo* (Done Laurendiren gaua, 2018), Palermoko Manifestan, eta nahiko monumentala da haren efektua. Baratze baten azalera terrakotazko lauzaz estali du erabat, obra dagoen Plazzoko aretoan. Lehen begiratu batean, zoladura arrunta dirudi, baina hobeto begiratuz gero, zuhaitzetatik eroritako limoien bolumena markatuta ikusten da lauza batzuetan. Sotila eta poetikoa da efektua, Povera artearen tradizioari eta prozesu naturalekiko zuen interesari jarraikiz eratua.[9]

Euskal artistengandik hurbilago daude, agian, beste pintore eta eskultore gutxi asko gazte batzuk. Hurbiltze horretan, lan-prozesuak lengoaia objektualago batean amaitzen du, eta, aldi berean, 80ko hamarkadako aitzindari haiekin lotzen ditu egileak. Julia Spínola eta haren lan batzuk datozkit gogora; esate baterako, *Frase (objeto)*. *BOCA* (2013), non objektuen eta formen arteko harremanak sortuz lurrean leku bat okupatzen zuen, Elena Aitzkoarengana edo Josu Bilbaorengana hurbiltzen duen helburu protolinguistikoa tarteko, edo Ángela de la Cruz eta haren objektu pertsonifikatuak, eleberri pikareskoaren tradizioari jarraikiz, sarritan lurraren gainean jartzen dituen itxura antropomorfikoko astoak eta mihiseak erabiliz jarriak.[10]

Amaitzeko, eta performatibotasunaren, lekuaren eta lan-prozesuaren ideiarekin batera, adierazi behar genuke, beharbada, azken hamarkadan orokorra izan den eta artearen materialtasuna nabarmentzen duen joera baten jarraitzaile izan direla artista horiek guztiak, batez ere eskulturari dagokionez (Baghramian, Harrison, Hopf, Skaer…). Kasu batzuetan, objektu artistikoaren berrinterpretazioa eragin du horrek, objektu horrek autonomia sendoagoa izatea eta "bizi propioa" hartzea. Nolabait esatearren, "subjektualizatu" egiten da objektua, ahaldundu. Edo, beste era batera esanda, kontzientzia hartzen du. Crespo, Aitzkoa, Bilbao eta Llaríaren lanean ikusten da ezaugarri hori, baina ez guztietan berdin. Haien eskulturak materialtasun abstraktuaren eta figurazioak berekin dakarren giza presentziaren artean kulunkatzen dira. Zorua da agertokia eta testuingurua, objektu "subjektualizatu" horien eta ikuslearen irudimenaren arteko harremanak gauzatzen diren lekua.

OHARRAK

1. Rosalind Krauss, *El inconsciente óptico* [1993]. Madril: Tecnos, 1997, 260-261. or.
2. Juan Luis Moraza, Éxtasis*, status, estatua*. Zaragoza, Pablo Gargallo Museoa, 1995.
3. "Forma cerrada pero rota", elkarrizketa Marc Navarrori, *El Estado Mental*-en, 2016ko azaroan.
4. Ibid.
5. Elena Aitzkoaren mezu elektronikoa, 2018ko abuztuaren 8koa.
6. Performance horren titulua lehenagoko poema batetik dator, eta duela gutxi (2018) egindako film batean erabili da berriro; dena dela, elkarrekiko independenteak dira lan horiek guztiak.
7. http://www.halfhouse.org/josu-bilbao.html (2018ko uztailaren 26an berreskuratua)
8. https://vimeo.com/217540332 (2018ko uztailaren 27an berreskuratua)
9. Antzeko jokabidea atzematen da Josu Bilbaoren lanean: desagertzeko zorian dagoen eta ikusezina izateko joera duen leku batera jotzen saiatzen da (Halfhousen, adibidez), edo obra "monumentalago" eta desafiatzaileago bat egiten du (Botín Fundazioarentzat 2018an egin zuen *Esàk-Esà,* adibidez).
10. Hona testu hau idaztean burura etorri zaizkidan eta gaiari buruzko eztabaida zabaltzean han agertzea merezi luketen beste artista batzuk: Armando Andrade Tudela, Leonor Antunes, Ángel Bados, Bruno Cidra, Sandra Cuesta, Diogo Evangelista, Rodrigo Hernández, Anne Imhof, Pello Irazu, Oier Iruretagoiena, Adrià Julià, Claudia Rebeca Lorenzo, Josep Maynou, Vera Mota, Gabriele Muguruza, Gonçalo Sena, André Sousa, Susana Talayero, Manu Uranga eta Ricardo Valentim. Jakina, guztiz subjektiboa da zerrenda eta, gutxi asko, nire azken bost urteotako esperientziari lotua.

Lurzorua

Pedro de Llano

I

La recepción de los discursos del Minimal y la performance —e incluso, yendo más atrás, del constructivismo— se realizó de una manera especialmente intensa en el contexto artístico del País Vasco en las décadas de los ochenta y noventa. Primero con la generación de lo que se denominó como "Nueva Escultura Vasca" (Badiola, Bados, Fernández, Irazu, Moraza…) y más adelante con otros artistas como Sergio Prego e Itziar Okariz que introdujeron elementos performativos en sus obras.

Uno de los aspectos más interesantes de este proceso fue el protagonismo que tuvo el suelo como elemento integrante de la escultura, tanto a nivel formal como simbólico. Pero, a diferencia de los norteamericanos, que plantearon este debate fundamentalmente a partir de la crítica y deconstrucción de la pintura abstracta, los artistas vascos mantuvieron su marco de referencia centrado en la escultura y el "problema" del pedestal. Frente al proceso de "desublimación" de la pintura iniciado por autores como Robert Morris o Andy Warhol, tal y como señaló Rosalind Krauss en su libro *El inconsciente óptico* (1993),[1] los artistas en Euskadi se dedicaron a experimentar con las posibles articulaciones del objeto en relación con un marco de referencia expandido, que era la arquitectura, y a fusionar los elementos sustentantes (la peana) con los sustentados (la obra). Al final llegaron a conclusiones similares desde puntos de partida distintos: uno más procesual y apegado a las convenciones de la pintura y otro más objetual y vinculado a la escultura abstracta moderna. En ambos casos con un fuerte componente antiilusionista.

Una obra fundamental para comprender estos debates en el contexto de los años ochenta es la instalación *Límite (implosión)* (1982), del Comité de Vigilancia Artística (CVA), formado por María Luisa Fernández y Juan Luis Moraza. La obra se compone de un gran número de fragmentos de esquinas de marcos y molduras esparcidos como esquirlas, junto con un doble pedestal y una esfera dorada. En gran medida esta obra fue una reacción, no exenta de ironía, al retorno a la "pintura-pintura" que tenía lugar a principios de los ochenta en España. La pintura se concibe aquí en su sentido más literal y ornamental. En ella está muy presente el desplazamiento del ámbito de lo visual a lo material, la ambigüedad entre la imagen y el cuerpo, entre el plano vertical y el horizontal, así como la activación de la arquitectura y del espectador, que también caracterizó al minimalismo. *Límite (implosión)* puso las bases de las carreras independientes de Fernández y Moraza, en las que ambos reflexionaron intensamente sobre la crisis del pedestal en la escultura contemporánea y sus implicaciones.

Esto es algo que se puede ver con claridad en la obra temprana de María Luisa Fernández, con piezas de madera que establecen una relación directa con el suelo, al mismo tiempo que no renuncian a un nivel de lectura en el que la textura y las cualidades del material son realzadas a través de tintes que evocan otras realidades como, por ejemplo, la arquitectura vernácula, el paisaje y el territorio. Me refiero a piezas como *Mar Rojo* (1986) o *Lo semejante, un Dios lo junta siempre* (1987), en las que junto a este elemento visual en la interpretación de la escultura —que para cierto sector de la crítica moderna ha sido siempre anatema o sacrilegio— se puede apreciar también un movimiento que parece dar una continuidad virtual o imaginaria a las obras en el espacio; en un caso a través de un sutil juego de cotas y en el otro mediante las cuñas metálicas que actúan como una especie de pedestal integrado aunque inestable.

Es sabido que los artistas que identificamos con la Nueva Escultura Vasca mantuvieron un diálogo constante entre ellos que incidía en temas que se ven reflejados en sus obras. Por ejemplo, la relación "edípica" con Jorge Oteiza y la modernidad, la cuestión de la pérdida del pedestal y la expansión de la escultura, o cuestiones más específicas como la legitimidad del color en la escultura. Muchas de ellas aparecen en la obra de los ochenta de Txomin Badiola, en la que, además de establecer un diálogo directo con Oteiza, plantea una vía neoconstructivista. Un aspecto importante de la obra de los ochenta de Badiola es el modo en que evoluciona desde unos planteamientos deudores de la abstracción, con lo que esta implica en relación con la autonomía del objeto, hacia obras que interactúan con el espacio arquitectónico, bien sea creando relaciones con el suelo o con la pared (como la *Serie Negra* de 1981 u otras posteriores más vinculadas al constructivismo: *E. L. el Ruso*, 1987; *Pieza insatisfecha*, 1987, o *E. L. el Ruso*, 1987-1988). En su caso, el pulso entre Oteiza y Anthony Caro con los constructivistas y minimalistas fue ganado por los segundos. A finales de la década y ya en los noventa este proceso condujo a Badiola hacia un lenguaje figurativo y teatralizado que apelaba al espectador no solo a través de referencias a la cultura popular, sino también mediante dispositivos o instalaciones que determinaban su comportamiento en el espacio.

Tanto en el caso de Fernández como en el de Badiola se percibe una dialéctica entre las cualidades espaciales y volumétricas de la escultura sin pedestal y el registro visual y figurativo propio de los medios bidimensionales, bien sea con la pintura y sus referencias paisajísticas, en el caso de la primera, o con la fotografía y la serigrafía, en el del segundo. Otra aportación interesante en esta línea sería la de Juan Luis Moraza en obras como *Éxtasis, status, estatua* (1994) o *Suelo imperial (fragmento)* (1994). En ellas Moraza, que también había desarrollado un lenguaje abstracto en los ochenta (*Lithos*, 1987), introduce elementos representativos, a menudo vinculados al cuerpo. La primera consiste en una colección de moldes de tacones de zapatos de hombre y mujer realizados en resina sintética, un material innovador en la escultura española de la época. Los tacones, traslúci-

Juan Luis Moraza, *Suelo Imperial* (1994). Fotografía: cortesía del artista.
© Juan Luis Moraza, VEGAP, Bilbao, 2018

María Luisa Fernández, *Mar Rojo* (1986). Fotografía: cortesía de Maisterravalbuena y la artista

dos, se disponen en el suelo boca abajo conformando un rectángulo de 420 x 400 cm. Las diferentes alturas de los objetos, aunque modestas para el espectador, junto con los brillos generados por la luz, hacen que el conjunto resulte especialmente seductor a la vista. En una segunda aproximación, la obra es capaz de evocar los cuerpos ausentes. El título, finalmente, hace referencia a las relaciones de poder entre los géneros.[2]

Las obras de estos tres artistas muestran la colonización del suelo y el abandono del pedestal en el contexto vasco de los años ochenta y noventa, como precedente de la reactivación del mismo que han realizado artistas más jóvenes recientemente.

II

Fijémonos, por ejemplo, en la exposición *Cosa y tú* (2015) de June Crespo. En ella la artista mostró una serie de trabajos titulada *Cheek to Cheek* en la que el peso y el equilibrio eran los principales elementos de articulación de las obras con el suelo, junto con otras tres esculturas que integraban la imagen fotográfica y publicitaria entre sus componentes. El diálogo entre ambos cuerpos de trabajo resultaba interesante porque mientras uno creaba una tensión horizontal, como si las esculturas acusasen la presión de una fuerza invisible, las del otro se erguían hacia el techo, bien desplegando planos ortogonales de hierro (*De nuevo al frente*, 2015) o bien gráciles, vibrantes e inestables, como *Daytime Regime (Brigitte)*, 2015.

La serie *Cheek to Cheek* está compuesta por una serie de vaciados en hormigón y cemento de fragmentos de cuerpos (piernas, caderas, culos…) extraídos de un maniquí femenino que Crespo encontró por casualidad en el escaparate de una tienda china en Bilbao.[3] Las obras reposan directamente sobre el suelo como si estuviesen acostadas y se articulan a partir de dos o más fragmentos que descansan unos sobre otros. La artista los "viste" con prendas de ropa ajustadas (*jeans* o trajes de baño) que resaltan las formas, como un eco incongruente de su función original en un comercio de "bajo coste". Son esculturas tectónicas, con un cierto grado de rudeza, en las que la imagen del cuerpo vencido y mutilado —que transmite un extraño efecto entre lo pétreo y lo mórbido— contrasta con el gesto festivo y absurdo que supone cubrir un pedazo de materia inerte y gris.

Cheek to Cheek apela a un discurso histórico y artístico que tiene como extremos las estatuas clásicas, muchas de las cuales nos han llegado desmembradas e incompletas, y la obra de artistas contemporáneos como el norteamericano Robert Gober, que, a principios de los noventa, realizó varias series de obras compuestas por fragmentos de cuerpos yacentes, en su caso con cera y otros materiales. En las obras de Crespo la aspereza del cemento las asimila a la arquitectura y contrasta con la tersura del mármol, del mismo modo que la posición yacente se opone a la verticalidad de las figuras griegas o romanas. Crespo está, en este caso, más próxima a los discursos sobre el género y la abyección —que tienen su origen precisamente en aquel contexto traumático provocado por la epidemia de sida en el que Gober creó aquellas obras— que a cualquier postura nostálgica. Por último, otro aspecto sobre el que la propia artista llama la atención es el comportamiento fenomenológico y la relación psicodinámica que el espectador desarrolla con estas piezas al generar un recorrido a su alrededor[4] que oscila entre la fascinación y la repulsión.

